ARGIA

Hitz egin dezagun heriotzaz eskolan

32-36. orriak

#2.776 | 2022 / 05 / 01 | 4,00 €

Zergatik dabil makal Ukrainako gerraren kontrako mugimendua?

12 I NET HURBIL

"Oso lagungarria da ingelesik ez jakitea katalana ikasteko!"

16 I GÜNEŞ ÖZTÜRK

Leslie Feinbergen gogoeta euskarara, borrokalari transgeneroez

44 I FERMINTXO ZABALTZA

2. argitaraldia

Sendabelarrek dakitena

EZAGUTU, BILDU ETA ERABILI

Garbiñe Larrea

248 orrialde

25€

+ 4€ bidalketa gastuak

40 €-tik gorako erosketetan, bidalketa doan.

azoka.argia.eus

943 37 15 45

Hemendik aurrera erosketak **BIZUM** bidez ere ordaindu daitezke.

ARGIA BIZI BARATZEA

ARGIA

2.776 zenbakia I Maiatzak 1, 2022

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
08 I EKONOMIAREN TALAIAN
09 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
09 I EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO IRUDIA:
PAULA ESTEVEZ

Iritziak

21 I ENDIKA ALABORT
22 I JUNE FERNÁNDEZ
23 I ROSER ESPELT
23 I LAURA MINTEGI
24 I MIKEL GOMEZ

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

40 I DENBORAREN MAKINA
41 I ARGIA KOMUNITATEA
42 I BIZI BARATZEA
48 I KULTUR-KRITIKAK
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: AINHOA RESANO
54 I EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

DANI BLANCO

44 I **FERMINTXO ZABALTZA**
itzultzailea elkarrizketatu du Jenofa Berhokoirigoinek. Zabaltzak Leslie Feinbergen bi liburu euskaratu ditu. Leslie judutarra, langilea, pobrea, mari-mutila, feminista, transgeneroa... zen eta zapalkuntzak batzearen alde egin zuen, bai inplikatu zen borroketan eta bai bere bizipenetan oinarritu zituen literatur lanetan.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 I NET HURBIL
“Gerra gelditu” eskatzean nori laguntzen ote diozu: Putini, munduari, NATOri, ukrainarrei...?
Pello Zubiria

16 I PERTSONAIA I GÜNEŞ ÖZTÜRK
“Errealitate sozioekonomikoak zeharo baldintzatzen du beste herrialde batean sustraitzeko gaitasuna”
Danele Sarriugarte

26 I EKONOMIA
Desazkundea: mehatxu edo aukera
Aitziber Agirre

32 I HEZKUNTZA I NAROA MARTINEZ
“Umeari traumarik ez sortzeko bidea ez da heriotza ezkutatzea, akonpainamendua egitea baizik”
Mikel Garcia

37 I GARRAIOA
Merkatua da, lagun
Peru Iparragirre

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Onintza Irureta
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto
Azoka
Mikel Olabide
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus
Telefonoa
943371545
Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:
antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

Odolezko urrea

Brasilgo 200 herritako zazpi mila indigena inguruk hamar egunez kanpaldia egin dute Brasilian, Lur Askea Kanpalekuan. Hauteskundeak izango dira aurten, eta borroken batura sustatu nahi dute [Bolsonaroren] "gobernu genozidaren azken urtean". Kanpaldia antolatu dute kongresua eta gobernua herri indigenen eskubideak urratuko dituzten proiektuak bozkatzen ari zirela. 191/2020 lege-proiektua tarteko, gobernuari ahalmena ematen dio bizitzarako kaltegarriak diren jarduerak eskala handian ustiatzeko –meatzaritza, "garimpoa" (harribitxien legez kanpoko bilaketa), nekazaritza eta abeltzaintzako makro-instalazioak, presa hidroelektrikoak... –, baita aurretik babestutako lurraldeetan ere. Horregatik kalera atera dira "Ouro de Sangue" oihukatuz, beren lurretan meatzaritza handitzearen aurka.

AMANDA PEROBELLI / REUTERS AXIER LOPEZ



Frantziako lehendakaritzarako hauteskundeen bigarren itzuliari so

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Macronek segitzen du Frantziako presidente, sostengu gutxiagorekin

Frantziako lehendakaritzarako bigarren itzulia irabazi du orain arteko presidenteak, botoen %58,6 lorturik, 2017ko bigarren itzuliari alderatuz, ia bi milioi boto galdu arren. Parean zuen eskuin muturreko Marine Le Pen, hauteskundez hauteskunde indartuz doana –duela bost urte %33,9 egin zuenak aurten %41,4 egin du, 2,5 milioi boto gehiagorekin–.

Abstentzioa ere da bozketa horietan kontuan hartzeko osagaietariko bat: 2017ari alderatuz, 1,5 milioi hautesle gehiago gelditu dira bozka-lekutik pasa gabe: bozkatzaileen %28,2a. Bozkatzera joan baina zuri edo baliogabeko papera jarritakoei begiratuz gero, 2017an baino gutxiago dira –%11,52tik %8,6ra–, baina abstenitu direnen kopurua hiru puntuz emendatu da bost urtez. 1969az geroztik ez zen ikusi hain parte-hartze apala. Macronen politika gaitzesteko ahotsa izan da hein batean, batez ere ezkerreko bozkatzaileen partetik.

Lehen itzulian, hirugarren atera zen ezker muturreko Jean-Luc Melenchon, eskuin muturrarekin 0,8 puntuko alde ttipiarekin, eta bestelako hautagaitzek ez zuten %10aren langa gainditu. Analisiei eta zundaketei begiratuz gero, badirudi Melenchonen aldeko gutxiengo batek duela bigarren itzulian Le Pen bozkatu –%17 Ipsos Sopra Steria institutuaren arabera–; hots, gehiengoa abstentzioaren –%42a– eta Macronen alde –%41a– kokatu da. Eskuin muturrari bidea mozteko, gogoz kontra Macron bozkatu du beraz 2017an bezala ezkerreko hauteslegoak –nahiz eta duela bost urte baino hiru milioi hautesle gutxiagok egin bigarren itzulian Macronen alde–. Ezkerreko hautagaitza guztiek zuten Le Peni bidea mozteko deia luzatua, batzuk Macronen alde bozkatzeko deia eginez –Alderdi Sozialista, ekologistak–, besteek boto erabakimena utziz –Melenchon, NPA zein Alderdi Komunista–.

Lehen itzulia



Emmanuel Macron
Marine Le Pen
Beste hautagaiak

2022
Boto baliogabea edo zuria: **%2,20**
Abstentzioa: **%26,31**

2017
Boto baliogabea edo zuria: **%2,56**
Abstentzioa: **%22,23**

Bigarren itzulia



2022
Boto baliogabea edo zuria: **%8,60**
Abstentzioa: **%28,01**

2017
Boto baliogabea edo zuria: **%11,52**
Abstentzioa: **%25,44**

ESKUIN MUTURRAK, 2017AN BAINO 2,6 MILIOI BOTO GEHIAGO

Indarra hartuz doa eskuin muturra Frantziako Estatuan ere eta bigarren itzuli honetako emaitzak dira froga: lehen itzulitik bigarrenera, bost milioi hautesle gehiago izan ditu Le Penek, orotara hautesleen %41,4 batuz. Nabarmentzekoa da Frantziaren menpe diren itsasoz haraindiko eremuetan eskuin muturra garaile atera izana, jakinez lehen itzulian Melenchon zela irabazle. Macronen politikarekilako desadostasuna markatzeko bidea izan da beraz batzuentzat eskuin muturrera jotzea. ●

Legebiltzarrari begira dira alderdi guztiak

Ekainaren 12 eta 19an iraganen dira Frantziako Legebiltzarreko hauteskundeak. Orain arte Emmanuel Macronen Gobernuak zuen hor ere gehiengoa, eta xede zituen erreformak aitzina eraman ahal izan ditu azken bost urteetan. Bere politika neoliberala blokeatzeko asmoz, bozketa horiek irabazi nahi ditu ezkerrak eta nagusiki hitzordu horri begira egon da bi itzulien artean: izan Macron, izan Le Pen parean, Legebiltzarrean gehiegoa lortu nahian dabil.

Ezker muturreko Jean-Luc Melenchon atera zen lehendakaritzako hauteskundeen lehen itzulian hirugarren indarra, botoen %21,95 lorturik –Le Pen baino 0,8 puntu gutxiago– eta bere inguruan batu nahi du ezkerra: "Bataila eder honetan gurekin bat egitera gonbidatzen ditut Herri Blokean sartu nahi duten guztiak. Hirugarren itzulia dago, ez da bigarren itzulian bukatzen kontua". Europe Ecologie Berdeak ekologistekin, NPA antikapitalistekin, Alderdi Komunistarekin akordio bat lortzeko negoziaketak abiatuak ditu Melenchonen La France Insoumise alderdiak. Oraingoz, Alderdi Sozialista ez da negoziaketen parte, nahiz eta hitz egiteko irekidura erakutsia ukan.

Nahiz eta bigarren itzulian galdu, emaitza ona egin du Marine Le Penek –"garaipen argia", hautagaiaren hitzetan–. Hautesleen %41,4ak bere alde bozkaturik, sostengu handia jaso du eta nola ez, Legebiltzarrean ordezkatua izateko xedea du –gaur egun, 577 diputatuetatik soilik zortzi dira Le Penen Rassemblement National alderdikoak–. "Macronen politika bortitza oztopatzeko hautagai" gisa aurkezten da, funtsean, lehendakaritzarako kanpainan egin duen gisara.

Argi da Macronek 2017az geroztik eraman politikaz nazkaturik eta haserre direla herritar anitz. Ezker muturrera ala eskuin muturrera egingo du kexu dagoen hautesle horrek? Ezin argiki jakin. Segur dena da, bi aldeek dutela haien kanpaina giro horretan oinarrituko.

Nola ez, bere aldetik Macronek Legebiltzarrean gehiengoa atxikitzea du helburu –577 hautetsietatik 314 dira bere alderdikoak gaur egun–. Baina 2017an hautagaitza berria zena gaur egun ezagunagoa da eta bozketa honen bidez jakinen da zer nolako sostengua daukaten lekuko hautetsi horiek. Ezkerraren eta eskuinaren arteko hiru kohabitazio izan dira iraganean: François Mitterrand presidente sozialista eta Jacques Chiracen artekoa 1986tik 1989ra; Mitterand eta Edouard Balladuren artekoa 1993tik 1995era; eta azkenik, Chirac presidente eskuindarra eta Lionel Jospinen artekoa, 1997tik 2002ra. Ezkerrak batasuna adostea lortzen badu, laugarrena osatzeko aukerak daude. ●

Ipar Euskal Herriari so

%34,5

Ipar Euskal Herrian emaitza hobea lortu du Emmanuel Macronek, botoen %65,5 jasoz. Parean, Marine Le Penek %34,5 eginik, Frantziako Estatuari alderatuz, zazpi puntu apalago gelditu da eskuin muturra. 55.907k diote botoa eman eskuin muturrari –lehen itzulian baino 26.746 gehiagok–. Frantziako Estatuko tendentzia bere sendi da: urtez urte azkartuz doa eskuin muturra Euskal Herrian ere.

%36,65

Abstentzioen eta boto zuri edo baliogabeen kopurua Frantzia osokoa bezalakoa izan da Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan gaindi. Macron ala Le Pen bozkatu ez dutenak %36,65 izan dira. Hala ere, bozka-lekura joan eta zuri ala baliogabe bozkatu dutenen kopurua handiagoa izan da Ipar Euskal Herrian: %11,63koa, Frantziako Estatuan %8,60 izan delarik.

3

Ipar Euskal Herritik, Florence Lasserre, Vincent Bru eta Jean Lassalle zentristak dira orain arteko diputatuak. Nahiz eta Macron lehen indarra atera, ikusteke dago zer nolako sostengua jasoko duten Legebiltzarrerako bozketan bere aldeko Bru eta Lasserrek –Lassalle aurkari du–. EH Bai-k ere aurkezteko hautua egin du, "alternatiba" gisa.

MOTZEAN

Deliveroo-ko bi zuzendariri kartzela zigorra ezarri diote Frantzian, autonomo faltsuak kontratatzeagatik.

Preso errepublikarrek berreraiki zuten trenbidea ardatz, oroimen ibilbidea egin dute Gernikan, 50 lagunek.

Topaketak antolatu ditu Bilgune Feministak ekainaren 11n eta 12an Oñatin, bere hogeigarren urteurrenean.

Kanbon, Mariena urbanizazioan 94 etxebizitza sortzeko proiektuaren aurka manifestazio jendetsua egin dute. 40 bat traktorek bat egin dute manifestariekin.

Aurrekaririk gabeko arma bidalketa egin du Espainiako Gobernuak Ukrainara: 200 tona pisu inguruko material militarra.

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak maiatzaren 7an ospatuko du 17. urtebetetzea, Ainhiza Monjolosen. Iaz hil zen Mixel Berhokoirigoin omenduko dute.

Suizidioaren prebentzioan prestakuntza jaso dute Nafarroako hezkuntza ikuskariek.

Iñaki Segurola Amutxastegi hil da

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Iñaki Segurola Amutxastegi "Ogru" (1962, Azpeitia) apirilaren 15ean hil da. Segurolak *Orotariko Euskal Hiztegia* landu zuen urtetan, baita *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* ere. Euskaltzain urgazlea zen 1991tik. Euskarak hizkuntzan barnebilduta daraman filosofiaz idatzi zuen *Sed quia sua* (2020, Erein) saiakeran.

Lehen saiakera 2005ean kaleratu zuen, Alberdaniarekin: *Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo*. Ondoren idatzi zituen *Nere gorringotik* (2008, Alberdania) eta *Arrazoia ez dago edukitzerik* (2012, Alberdania).

> **Ibon Sarasolak hautatu zuen *Orotariko Euskal Hiztegia* egiteko. Barne belarri finekoa zen eta 2020an *Sed quia sua* saiakeran bildu zuen euskarak zer dioen**

Koiteretzia eleberri dialogikoa da bere azken lana (2021, Alberdania). Konfinamendu garaian idatzi zuen, eta bertan jaso zituen garai hartan elikagai bila joandakoan topo egiten zuten herritarren elkarrizketak eta ikuspegiak.

Irratietan ere ahots ezaguna zen berea. *Hankak Lurrin* saioa egin du azken urteetan Kontrako Eztarrixe irrati librean eta ARGIA Saria irabazi zuen irratsaio honek 2020an. Hamar urtetik gora egin zituen Euskadi Irratiko *Arratsean* saioan, *Sermoia* izeneko iritzi tartean.

HERRITARREN AGURRA

Apirilaren 16 arratsaldean Azpeitiko Agur Aretoan elkartu zen Iñaki Segurolarekin eguneroko tratua zuen Urolaldeko jendea –gazte kopuruak poza ematen zuela–, orain hogei urte Hernanin kale-giroan zebiltzanak, eta hizkuntza bere jardun duten Euskal Herriko hainbat txokotako izenak: idazleak, bertsolariak, abeslariak, irratiko eta prentsako kazetariak, irakasleak...

Ezustean harrapatu zituen Segurolaren heriotzak lau lagun ez beste guztiak, eta agur ekitaldi zibilak lagundu zien bere laguna zen bezalaxe agurtzen. Kantu emanaldiak, bertsoak eta garai zein testuinguru ezberdinetako argazkiak uztartu zituzten ekitaldian; azken egunak Segurolarekin nola bizi izan zituzten azaldu zuten haren lagun Mikel Alberdik eta Eneko Ibargurenek. Errespetuz eta taburik gabe ahoskatu zituzten Segurolarekin bizitzaz izandako elkarrizketak, momentuan bizi zuenaz eta bukatzeko egin zuen hautuaz. ●

DANI BLANCO

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Proust galdetegia

ARITZ GALARRAGA

1. Zein da zure bertuterik maiteena: Bertuterik eza, edo, nahiago bada, ezintasunez betetako bertute txikien bilduma 2. Gizonezko batengan atsegin duzun dohaina: Adeitasuna, neurrian beti ere 3. Emakumezko batengan atsegin duzun dohaina: Adeitasuna, neurrian beti ere (zergatik nahiago izan beharko nuke beste gaitasun bat emakumeengan?) 4. Zeregin gustukoena: Lo egitea 5. Zoriontasunaz daukazun ideia: Liburu mendi bat nire zain edukitzea 6. Zorigaitzaz daukazun ideia: Liburu mendi bat nire zain edukitzea, eta zein liburu irakurri ezin erabakitzea 7. Kolore, eta lore, maiteena: Zuri, gorri eta berdea izan ezik, beste edozein; zalantzarik gabe geranioa 8. Zu ez bazina, nor izan nahiko zenuke: Galdera agian litzateke nork izan nahiko lukeen ni, ez duzu uste? 9. Non nahiko zenuke bizi: Orain, Joseph Brodsky irakurri eta gero, Venezian. Edo, tira, zuzenean Atlantidan 10. Prosazko autore gustukoena: Poetaren bat, adibidez William McGonagall 11. Poesiazko autore gustukoena: Narratzaileren bat, adibidez Amanda McKittrick Ros 12. Pintore eta musikagile gustukoenak: Pintoreak, gure seme-alabak, bizpahiru urterekin; musikagileak, edo hobeki, zaratagileak, gure seme-alabak, 11-13 urterekin 13. Bizitza errealeko heroi maskulinoa: gure auzoko postaria; eguna joan, eguna etorri, etxeraino ekartzen dizkidalako liburuak 14. Bizitza errealeko heroi femeninoa: gure auzoko okina; eguna joan, eguna etorri, aurpegian asmatzen baitit uneoro zehazki zer nahi dudan 15. Fikziozko heroi maskulinoa: Santi Leoneren edozein pertsonaia maskulino 16. Fikziozko heroi femeninoa: Uxue Apaolazaren edozein pertsonaia femenino 17. Gehien gogaitzen zaituena: Galdetegi zentzugabeak erantzutea 18. Zerekin zara barkabera: Barkabera direnen akatsekin, segur aski 19: Esapiderik maiteena: Ze telebista katetan emango dute hau? ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

Espioitza

Pegasus programaren bidez, Arnaldo Otegiren eta Jon Iñarrituren mugikorren deiak kontrolatu dituzte, baita Kataluniako 65 politikari eta aktibista independentistenak ere. CNIk 6 milioi eurotan erosi zuen Pegasus. Espainiako Gobernuak izan duen papera argitzeko eskatu du hainbat alderdik.

Klima larrialdia

Bere buruari su emanda hil da klimaren aldeko aktibista bat AEBetan. Wynn Bruce 50 urteko gizonak bere buruari su eman zion Washingtonen, Gorte Gorenaren parean, eta erreduren ondorioz hil zen ospitalean. Lurraren Eguna aukeratu zuen ekintza burutzeko.

Eskubideak

Gurasobakarra den ama batek Bilboko epaitegi batean lortu du amatasun baimena ez izatea soilik amari dagokiona, legeak dioen moduan, baizik eta bikoteei jaioberriaren zaintzarako ematen zaien epearen adinakoa izatea. Gurasobakarreko haurrak diskriminatzen ditu legeak, dio ebazpenak.

EKONOMIA

Hazkundea moteltzea, arazo edo helburu?

AINHOA ETXAIDE AMORRORTU

Hitz egin dute kapitalak mundu mailan dituen erakunde nagusiek eta esperotakoa iragarri dute: hazkunde ekonomikoa moteldu egingo dela, gobernuen aurreikuspenak ez direla beteko, eta "estualdi ekonomiko berriak" langabezia eta pobrezia forma hartuko dituela langileentzat. Ez da krisi berri bat, egiturazko krisitik ateratzeko sistemaren ezintasunaren beste adibide bat baizik.

Iñigo Urkulluk argi esan zuen Aberri Egunean ez dela momentua sektore publikoari ez duena eskatzeko. Bakoitzak bere baliabideekin egin beharko dio aurre datorrenari. Eta ez gaitezen okertu, oporretan inguruan ikusi dugunetik harago, ikusten ez dugun errealitatea beste bat da geroz eta gehiagorentzat. Aurrezteko aukera aspaldi galdua dutenak, oinarrizko beharrak merkatuan asetzeko zailtasunak dituztenak, erresistentzia gaitasunik gabe geratu diren langileak, zaintzaz arduratzeagatik ekonomikoki zigortzen dituzten emakumeak... eta hori guztiari aurre egiteko funtsezko egitura ekonomikoak merkatuari oparitu dizkieten instituzioak.

Hazkunde ekonomikoa moteltzea ez da berez albiste txarra. Izan ere, helburu politikoa behar luke, natur baliabideen kontrolerako mundu mailako gerrak bizitzera ohitu nahi gaituzten honetan. Hazkundeari lotutako ongizateak bereak eman dituelarik, asko gara diagnostikoan bat egiten dugunok. Birbanaketan eta bizi eredu jasangarrian oinarritutako sistema eraikitzeko adostasunak eta aliantzak dira falta zaizkigunak. Badago langileria, badaude proposamenak, badaude bide horretarantz egiteko arrazoiak. Aberri Egunaren biharamunean, laster Maiatzaren Lehena. ●

ANALISIA

Eta bakoitzak 5 milioi jasoko balitu?

JON TORNER ZABALA

Espainiako gizonezkoen futbol Superkopa, 2020an bezalaxe, Saudi Arabian jokatu da aurten. Jende batek harridura azaldu du, Espainiako Ligan ari diren kluben arteko txapelketa bat milaka kilometrora eramateagatik. Beste askok ordea "kirol legez" hartu du, eta haserre handirik ere ez du eragin zaleen artean, geroz eta onartuago daukagulako eliteko futbolarena negozio erraldoi bat dela eta, negozio handi guztien moduan, iturri oparoak behar dituela elikatzeko.

Harritu eta sumindu gara, ordea, Futbol Federazioaren eta Saudi Arabiaren arteko negoziazioen berri izan dugunean. Ez hainbeste Federazioak jasotzen duen diruagatik –nork ez zuen uste Saudi Arabiak eskupekoa emango ziola?–, baizik eta:

Batetik, Gerard Piqué futbolariaren Kosmos enpresa aritu delako bitartekari. Superkopa jokatuko duen futbolaria, akordio ekonomikoa ixteko negoziazioen parte? Interes gatazka dagoela bistakoa da.

Bigarrenik, Saudi Arabiak diru gehiago ordainduko duelako Superkopa jokatzen duten lau kluben artean Real Madril eta Bartzelona daudenean. Hortaz, Federazioak, arbitroen bitartez-edo bi klub horiei mesede egitea bila dezakeela uste dute zaleek.

Hirugarrenik, eta bereziki, *El Confidencial*-ek plazaratutako audio-grabazioetako batean Piquék esandakoagatik: "Diru kontuengatik baldin bada, Real Madrilekoak 8 milioi euroren truke joango lirateke. Ordaintzen zaizkio 8 Madrili, 8 Bartzelonari, eta besteei 2, 1... 19 milioi guztira, eta Federazioa seirekin geratzen da".

Gizonezkoen elite mailako futbola non dagoen eta norantz daramaten jabetzeko informazio interesgarria azaleratu du *El Confidencial*-ek, baina pertsona batzuk, Athletic eta Realeko zaleak tartean, ez dira zehazki horregatik haserretu, baizik eta Madril eta Bartzelonak 8 milioi eta "besteek" bat edo bi soilik jasoko luketelako. Galdera da: talde bakoitzak 5 milioi euro jasoko balitu, normal-normal onartuko genuke Superkopa Saudi Arabian jokatzea? Normala da hau guztia?

"Futbolak diru eta interes asko mugitzen du", adierazi du Miquel Icetak, Espainiako Kultura eta Kirol ministroak, Saudi Arabiakoaz galdetu diotenean. Gaineratu du ez dela ausartzen operazioa ikuspuntu etikotik baloratzera, gogorarazi ostean Federazioak ez duela laguntza publikorik jasotzen. Edonola ere, nabarmendu du publiko egin diren grabazio batzuek piztu dutela polemika, eta "onartezina" dela komunikazio pribatuak kontrolatzea horretarako babes judizialik izan gabe, zeren eta Espainian "ez dago espiatzerik". Harrapazank. ●

TEKNOLOGIA

Haur ziborgak

DIANA FRANCO

Ziborg hitza sortu zen izaki bizidun hobetu bat deskribatzeko. Gorputz organikoa eta teknologia elkartzean, gorputzaren prestakuntzak hobetuta dituen izaki biziduna litzateke ziborga.

Azkenaldian, haur txikientzako erloju adimentsuen eta kontrolaren inguruan pentsatzen aritu naiz. Nire haurrak ere erloju adimentsu bat nahi du. Erloju horietako batzuk interesgarriak izan daitezke, haurraren autonomia garatzeko tresna bat diren heinean. Beste batzuk, ordea, gurasoentzako eta korporazioentzako tresna bilakatu dira. Aplikazio bidez, haurraren gaineko kontrola baliatzen dute eta horrekin haurraren eta gurasoen arreta handiagoa eskatzen dute.

Kontrol logika horrekin saltzen ari diren erloju adimentsuak haurren jokabide eta gorputzarekiko kontrola handitzeko beharra areagotzen dute gurasoon gain. Aldi berean, lagun taldearen parte izateko bete beharreko eskakizun bilakatu dira haur askorentzat. Merkaturatzeko bidea, beraz, oso ondo diseinatua izan da eta negozio eredu ugari sustatzeko potentziala duen datu ustiaketa dago diseinu horren atzean.

Duela hamar urte, nik neuk, lagun batzuekin, horrelako proiektu bat egin nuen Arduino plataforma erabilita. Osasun eremuari loturiko proiektua zen, gaixo zeuden haur txikiak lo zeuden bitartean monitorizatzeko. Zenbait medikurekin bildu nintzen, eta proiektuaren prototipo xume bat atera genuen, ez zen oso ona. Gure ezagutzak ere txikiak ziren, baita horri eskaini ahal genion denbora ere, eta bertan behera utzi genuen. Baina uste dut badagoela aldea pertsona bat gaixo dagoenean monitorizatzearen eta pertsona bat denbora guztian monitorizatzearen artean. Gailu hauekin, denbora guztian gure haurren gorputzak monitorizatzearen beharra sortu digute. Hurrengo pausoa ez ote da izango haurren gorputzen konkista? Euren gorputzetan kontrol biometrikorako teknologia barneratzera helduko ginateke? Haur ziborgak izango ote ditugu? Zelan aldatuko ditu horrek guraso eta haurren arteko harremanak? Beharbada, horrelako gailu bat erostea pentsatzen gabiltzanean, erabakia hartzeko modu bat izan daiteke pentsatzea gailua norentzako tresna den benetan. ●

NAZIOARTEA

Peltier, AEB-etako presidentegai izan den Gloria La Riva sozialistarekin, 2020ko otsailean kartzelara egindako bisita batean.

Peltier: 45 urteko injustizia

AXIER LOPEZ

Hilaren 18an 45 urte bete dira AEBetako Ipar Dakotako jatorrizko herrien aldeko ekintzaileari bizi arteko espetxe zigor bi ezarri zizkiotenetik. Peltier-ek, epaiketatik bertatik, bere errugabetasuna mantendu du, eta nazioarteko hainbat erakundek –tartean AEBetako dozenaka kongresistak– salatu du bere zigorra epaiketa bidegabe batek eragin zuela. Peltier kartzelara eraman zuen tiroketa Pine Ridge erreserba inguruan gertatu zen, ekintzaileen eta poliziaren arteko protesta giroan. Erreserba hori Wounded Knee leku ezagunetik 16 kilometrora dago, non soldadu estatubatuarrek armarik gabeko ehunka lakota sarraskitu zituzten ia mende bat lehenago. Tiroketa hartan FBIko bi agente eta ekintzaile bat hil ziren. Azken honen heriotza, ordea, ez da inoiz ikertu. Peltierrek epaiketan onartu zuen tiroketan parte hartu izana bere burua defendatzeko, baina beti ukatu du agenteen heriotzarekin loturarik izan zuenik.

46 urte baino gehiago daramatza barrote artean. Egun 77 urte ditu, diabeteak jota dago, hipertentsioa du, burmuineko isuri batek eragindako itsutasun partziala eta aortako aneurisma bat. Espetxean urte gehien daraman AEBetako preso politikoa da, baita mundu mailakoa ere.

James Reynolds, Peltier espetxeratzen lagundu zuen fiskal estatubatuarrak berak ere gutuna idatzi zion Obama presidenteari 2017an, Peltier aske uzteko eskatuz: “Peltier kondenatu eta luzaz espetxeratu izana akatsa izan zelako eta badelako”. Era berean, Reynoldsek presidenteari eskatu zion natibo amerikarren eta AEBetako Gobernuaren arteko harreman gatazkatsua konpontzen laguntzeko. Esan gabe doa, eskaera horiek ez dituztela bete, ez Obamak ezta Joe Bidenek ere. George Floyden hilketak eta Black Lives Matter mugimenduak arraza-zapalkuntzari buruzko eztabaida lehen lerrora ekartzea lortu zuten, baina Peltierren auziak konponbiderik gabe jarraitzen du. Peltierrek berak publikoki adierazi zuenez, "kartzelak AEBetako indiar erreserbarik handiena dira".

Peltierren indultua eskatzeko, iazko urrian Joe Bideni gutuna bidali zioten AEBetako bi dozena kongresukidek. Horietako bat da Ruth Anna Buffalo, Mandan, Hidatsa eta Arikara nazioko kidea eta Ipar Dakotako estatu-ordezkaria. Hala zioen berak: "Ez dugu tratu berezirik eskatzen, gizaki gisa tratatuak izatea eskatzen dugu. Gutako inor ez da libre Leonard aske izan arte".

Erraz idazten da 16.000 egun eta gau jarraian gatibu pasa dituela. Horretaz galdetu zion Kevin McKiernan kazetariak 2017ko elkarrizketa batean Peltierri: "Jakin izan bazenu [zure militantzia politikoak] 40 urte espetxean egotera eramango zintuela, berriro egingo al zenuke?". Eta Peltierren erantzuna argia da oso: "Munduko beste herri guztiek bizitzeko duten eskubide bera dugu guk ere bai. Beraz, bai, berriz egingo nuke, nire jendearen eta herriaren mesedetan". ●

“GERRA GELDITU” ESKATZEAN NORI LAGUNTZEN OTE DIOZU: VLADIMIR PUTINI, MUNDUARI, NATO-RI, UKRAINARREI...?

Ukrainako gerraren kontrako protestak izan diren arren leku askotan, nabarmena da gerraren kontrako mobilizazioak motel dabiltzala munduan. Herritarrak ez ote dira ikaratzen gerra suntsitzailea Europan ikusita? Pare bat aste barru dena bukatuko dela espero dute? Ala telebista eta sare sozialek txikizioez zabaldutako irudiek blokatuta daude? Erantzukizunak eta erruak banatzeko eztabaidek paralizatu ditu, akaso?

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Iruñean apirilaren 9an pare bat ziento herritar bildu zen “Intsumisioa, gerrei!” eta “Putin ez, NATO ez” aldarrikatzera. Gogoan eduki zuten Unai Salanueva, 1997an espetxera sartu aurretik bere buruaz beste egin zuen intsumisoa: “NATOn sartzearen eta derrigorrezko soldadutzaren aurka geundenak, berriz ere gerraren aurka atera behar dugu kalera”. Alegia, 1991n eta 2003an antimilitaristak gerraren aurka atera ziren izpirituz zetozela Ukrainako gerrari aurre egitera, zehazki aldarrikapenokin: aurrekontu militarrak ez handitu, Ukrainara armarik ez bidali, lagundu gerrak kolpatutako herritarrei, lagundu hilketan parte hartzeari uko egin dioten desertoreei eta Ukrainan bezala Errusian desobedientziaz eta bortizkeriarik gabe gerrari aurre egiteagatik agintarien errepresioa nozitzen dutenei.

Ukrainako gerrak albistegi guztiak monopolizatu dituen hilabete pare honetan ahots gutxi entzun da defenditzen gerrarekiko objekzio eta intsumisioa. Frantzisko aita santu katolikoa izan da beste bat: “Lotsa sentitzen dut gastu militarra %2ra handitzen duten estatuekin, zoroak dira! Egiazko erantzuna ez dago arma gehiago, zigor gehiago eta aliantza politiko-militar gehiagotan”. Alabaina, mundu mailan feministak mobilizatu dira nabarmenen gerraren kontra, hainbat plataformatatik. Euskal Herrian, Emakumeak Gerraren Kontra taldea ARGIAn mintzatu da *Patriarkatua eta kapitala, aliantza kriminala* agiriarekin. Mundu mailan, Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Elkartea (WILFP ingelesezko sigletan) da adibide entzutetsuena. WILFPen buruetakoa den Carmen Magallónek sinatutako *Armek ez gaituzte salbatuko* artikuluak oihartzun zabala izan du: “Ikusita nola txalotzen den Europak Ukrainara armak bidaltzeko erabakia, nire ahots disidentea entzunaraziko dut: armek ez gaituzte salbatuko. Horren ordez, sartuko gaituzte elkar hiltzeko zurrunbilo batean”.

Magallonek aipatu ditu Käthe Kollwitz margolari alemanak gerraren kontra egindako obrak. Kollwitzek, antza, bere bi seme bultzatu zituen I. Mundu Gerran borrokatzera eta bertan galdu. “Itoaldi horretatik sortu zitzaion emakumeari *Haziak ez dira errotan eho behar* koadroa, zeinetan gizonei esaten dien desertatzeko. Haziak dira gazteak. Beren betekizuna ez da hiltzea, bizitzea baino”.

Mundu mailako beste agiri erreferentzial bat da *Gerraren aurkako erresistentzia feminista*, hainbat feminista ezagunen –Nancy Fraser, Verónica

IRUÑEKO KARRIKETAN. Apirilaren 9an "Intsumisioa, gerrei!" eta "Putin ez, NATO ez" aldarrikatu zuten.

EKINKLIK

Gago, Teresa Rodríguez, Yayo Herrero, Keeanga Yamahtta Taylor...– sinadurarekin zabaldu dena. "Jarraipena ematen diogu –diote– historian zehar gerra erreakzionarioen kontra parte hartu izan duen korronte feministari, hala nola 1914an [I. Mundu Gerraren aurrean] Rosa Luxemburg buru izan zuenari, 1980etan arma nuklearren kontra Greenham Commonen akanpatu zutenenari edo gerraren kontrako Beltzezko Emakumeen mugimenduari".

Argi eta garbi kondenatzen dute Vladimir Putinen erregimenak Ukraina inbaditu izana, NATO ere gerra honen errudun egiten dute, eta aldi berean "arbuiatzen dugu gerraren espiralean sakontzearen alde egunotan hartu diren erabakiak, gatazkan arma gehiago sartu eta gerren aurrekontuak handitzea". Errusian zenbait talde feministak daramaten lanarekin bat egiten dute eta Ukrainari zorrak kitatzea ere aldarrikatzen dute.

"Europak Ukrainara armak bidaltzea txalotzen da, baina armek ez gaituzte salbatuko"

Carmen Magallón

Hain zuzen ere, manifestu feminista hori izenpetzeari uko egin dion Catherine Samary ekonomialari feminista eta IV. Internazionaleko kideak *Ukrainako gerraren kontrako manifestu feminista zergatik sinatu ez dudan* idatzian biltzen ditu gerraren aurkako mugimenduak gaur Mendebaldean bizi dituen blokeo eta eztabaiden zenbait gako. "Manifestua sinatzeko –dio Samaryk– eskaini zidatenei esan nienez, nik berdin errespetatzen ditut beren haurrak babestearren herrialdetik ihesi joandako emakume ukrainarrak eta herrialdearen defentsa desarmatuan edo armatuan parte hartzen gelditu direnak. Honek berekin dakar aitortzea han erresistentzia armatuan aritzea gerra justua dela, defentsako gerra, herri-izaera Putinek nabarmenki auzitan

jarri dion herri batek egiten duena. (...) Ukrainarren erresistentzia armatua arbuiatu eta bakearen eta negoziazioaren aldeko dei egitea praktikan da ukrainarrei Putinen nahietara makur daitezen eskatzea".

Feminismoaren sailetik harago, ezkerreko mundu osoa dauka asaldatuta Ukrainako gerraren –agian zehatzago esanda, Errusiaren erasoaren– aurrean nola jokatzearen inguruko eztabaidak. Mila idatziren arteko beste bat aipatzearren, Europe Solidaire mugimendutik Mark Johnson eta Pierre Rousset saiatu dira laburbiltzen beren ustez Europako eta Mendebaldeko ezkerrean dauden erreakzioak: "Aurreko gatazketan bezala, sozialdemokrazia eta Berdeak NATOren akolito nagusi bihurtu dira. Ukrainaren inbasioaz geroztik, progresista batzuk Europar Batasunaren eta NATOren are aldekoago bilakatu dira. Beste aldetik, ezker antikapitalistaren zati bat ez da gai bere burua kokatzeko inperialismo ezmendebaldar batek sortu duen gatazka batean. Burkideok ez dira ausartzen Errusiaren inbasioaren kritika epel batetik harago joaten, uzkur dabiltza elkartasuna Ukrainari ere erakusteko eta diote, ebidentzia ororen kontra, NATO dela errudun bakar edo nagusia, Ukraina dela Mendebaldearen txotxongiloa edo estatu proto-fazista bat eta egiazko biktima Errusia dela. Beren posizioa *kanpista* da: Mendebaldeko klase menderatzailearen kontra doazenak automatikoki babesten dituzte. (...) Elkartasunaren abiapuntuan egon behar du gerra baten biktima diren herriak defenditzea. Korronte *kanpista* ez da gai Ukrainako herriarekiko elkartasunez aritzeko geopolitikaz dauzkan ideia desbideratuengatik".

> **"Ukrainan erresistentzia armatua arbuiatu eta negoziazioaren alde dei egitea da Putinen nahietara makurtzeko eskatzea"**
>
> Catherine Samary

Ildo berean, ezker hispanofonoan ondo ezaguna den Santiago Alba Ricok idatzi du: "Hona paradoxa: inbasio hasi zena gerra bihurtu da ukrainarren erresistentziari esker. Independentzia gerra bat da. Lehentasunezkoa da gerran NATO ez sartzea; lehentasunezkoa da Ukrainaren independentzia

"GERRAN EZ DA IRABAZLERIK" Manifestazioa, Bukaresten, otsailaren 24an, Errusiak inbasioa hasi zuen egunean. "Gerran ez da irabazlerik" dio erdiko emakumearen idatziak.

TWITTER

KATIE GODOWSK

ERRESISTENTZIA ARMATUARI LAGUNDU
"Errusiak borroka uzten badu, akabo gerra. Ukrainak borroka uzten badu, akabo Ukraina" afixa erakusten, New Yorkeko manifestazio batean.

defenditu eta segurtatzea. Gure gerrazaletasunaren muga izan behar du saihestea nazioarteko gatazka eta gerra nuklearra; gure bakezaletasunaren muga, justizia eta zuzenbide internazionala berrestea".

Eztabaidaren beroa ikusita, pentsa daiteke Mendebaldeko ezkertiarren artean Ukrainak eragingo dituela 1956an Hungariaren inbasioak eta 1973an Txekoslovakiarenak eragin zituzten adinako eten eta orbanak. Baina bitartean, urri ikusten dira Ukrainan nola edo hala eta berehala su etena eta bakea ezartzea eskatzeko mobilizazioak. Hauek ez dira asko indartuko, baldin eta beren urteetako aliatu ezkertiarrek ere aurpegiratzen badiete bakea eskatzea dela Putinen aurrean errenditzeko proposatzea.

Lerrook idazteko egunetan, munduko ezkerraren hainbat korrontetatik su-etenaren eta irtenbide negoziatuaren aldeko ahalegin bat ari dira egiten, *Ukraina: Bakea orain!* manifestuaren inguruan, Noam Chomsky, Jeremy Corbyn, Rafael Correa, Yanis Varoufakis, Pablo Iglesias eta beste zenbait pertsonalitatek gidatuta. Paperetik karriketako mobilizaziora jauzi egitea lortuko ote dute?

Bitartean, herritarren gehiengoak Ukrainako txikizioa ikusten du telebista eta sare sozialetan, porno militarra bailitzan kontsumituz. Ahaztuz lehen Iraken, Sirian, Libian edo Yemenen ikusitakoak orain gertatzen ari direla hementxe bertan. ●

ZINKUNEGI OPTIKA
Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
www.zinkunegioptika.com

LAPIMA Eguzkitako betaurreko bilduma berria

Güneş Öztürk

GALDERA ZEHATZAK, KRITIKA ZOLIAK

> PERTSONAREN ERREALITATE SOZIOEKONOMIKOAK ZEHARO BALDINTZATZEN DU BESTE HERRIALDE BATEAN SUSTRAITZEKO DUEN GAITASUNA

Bartzelonara asteburu pasa joanda, elkarrizketagile honek aukera aprobetxatu du Güneş Öztürkekin elkartzeko. XIX. mendean ehungintza-lantegi handia izandako Can Batlló espazioan egin dugu hitzordua, bertan baitago Col·lectivaT kooperatiba, ekonomia sozial eraldatzaileko beste zenbait proiekturekin batera. Baina, zaudete pixka batean, gaurko protagonistak beste hamaika gauza ikusi eta entzun baititu hona iritsi aurretik.

DANELE SARRIUGARTE MOCHALES JORDI BORRAS

Turkian jaioa zaitugu. Noiz eta nola iritsi zinen Kataluniara?

2007ko urriaren 14an iritsi nintzen Tarregara (Lleida), Europako boluntario-programa batekin. Alba elkartean lan egitera etorri nintzen; erakunde handi eta garrantzitsu samarra da Lleidako lurraldean, eta aniztasun funtzionala duten pertsonekin lan egiten dute. Sekulako babesa eman zidaten, sekulakoa. Egia esan, aitortu beharra dut engainatu egin nituela nolabait ere [barreak]. Esan nien ingelesa hitz egiten nekiela, eta ez zen egia... Turkiera baino ez nekien.

Nola izan zen hori?

Violant Amorós nire tutore maiteak –iaz joan zitzaigun minbiziarekin, zoritxarrez– telefonoz deitzen zien hautagaiei. Turkian nengoen ni, Ankaran, eta handik alde egin behar nuela erabakita nengoen. Deia ikustean, lagun bati eman nion telefonoa –ni baino hamar urte zaharragoa eta unibertsitateko irakaslea–, komunean giltzapetu nintzen, eta eskatu nion mesedez hitz egin zezala ni balitz bezala. Ospa egiteko beharra neukan, eta ez nuen lortuko baldin eta Albakoak konturatzen baziren ez nekiela ingelesik. Ni izateko plantak egin zituen adiskideak, eta onartu egin ninduten.

Zer gertatu zen Tarregara heldu zinenean?

Violant ezagutu nuen egunean, aldez aurretik prestatua nekarren diskurtsoa, ingelesez, nire egoera azalduz. Eta berak esan zidan moldatuko ginela.

Gauza bat esango dizut: oso lagungarria da ingelesik ez jakitea katalana eta gaztelania bizkorrago ikasteko! Elkarrizketa hau Tarregako nire lagunekin egin beharko zenuke, kontatuko

Özgür Güneş Öztürk

1982, SAMSUN (TURKIA)

Lan Ekonomia eta Harreman Industrialeko ikasketak egin zituen Gaziko unibertsitatean (Ankara, Turkia) eta Migrazioak eta Bitartekaritza Soziala masterra Lleidako unibertsitatean (Herrialde Katalanak). CIEMEN zentroan ere lan egin du, besteak beste, erlijio yaziditako errefuxiatuen egoera eta Turkiaren mendeko lurralde kurduetako prozesu politikoak aztertuz. Gaur egun, Col·lectivaT kooperatibako kidea da. Kataluniako prozesu independentistari buruz ere idatzi du, hala nola *Terra de ningú* (Inoren lurra; Pol·len, 2017) liburuan; berriki, *Una aproximació a la qüestió de les identitats en perspectiva nacional i de classe* (Identitateen auziari gerturapen bat, nazio eta klase ikuspegitik) artikulua argitaratu du Mariona Lladonosarekin batera.

lizukete nola ibiltzen nintzen kalean hiru hiztegi aldean neramatzala, eta jendeaz nekatzen nintzenean, burua mahai gainean jarri eta loak hartzen ninduen. Asko nekatzen du ezagutzen ez duzun hizkuntza batean aritzeak denbora guztian.

Boluntario-lanaren ostean, migrazioei buruzko master bat hasi zenuen Lleidako Unibertsitatean.

Bai, baina egoitza-baimena luzatzeko egin nuen. Nola gera zaitezke Europako herrialde batean, Europar Batasunaz kanpoko pasaporte bat badaukazu? Aukera gutxi dago. Bat: ezkontzea; bi: unibertsitateko programa batean matrikulatzea, uste baituzu horrek egoitza-eskubidea emango dizula, nahiz ez den guztiz horrela. Bestela, laneko kontratu bat lortu behar duzu, edo laugarren aukera asilo politikoa jasotzea da.

Nire kasuan, ez zen asilo politikoa, lan-kontratu bat lortzeko bestelako baldintza batzuk bete behar nituen, eta ezkondu nintekeen, baina momentu horretan ez nuen aukera hori aztertu (bi hilabeteren buruan aztertu nuen, ez pentsa).

Masterra, beraz.

Bai. Gainera, biziraupen-politika oso argia daukat nik, eta gustatzen zait hala izatea. Tarregan nengoen, jatorri turkiarreko pertsona bat, ez nekien katalanez, ez nekien gaztelaniaz. Hamaika hilabete pasa nituen 16.000 biztanleko herri batean. Bi hizkuntzak ikasten hasia nintzen, baina oraindik ez nituen menderatzen. Nola jakin nezakeen non bizi nintzen? Nola ezagutu nezakeen herrialdea?

Pentsatu nuen, ikasketak eginez gero, askoz hobeto ikasiko nuela hizkuntza, herrialdea ere ezagutuko nuela beste leku batetik, eta, azkenik, nahiz eta oso gustura nengoen Tarregan eta Alba elkartean, ez nintzen gizarte-hezitzailea, eta ez neukan bokaziorik lan horretan bizpahiru urtez baino luzeago aritzeko, beraz, nire etorkizuna eraikitzen hasi behar nuen nire desiren arabera.

Garai hartan katalan eta gaztelania gutxi zenekiela aipatu duzu. Nola moldatu zinen eskoletan?

Gelan, ni nintzen nazioarteko ikasle bakarra, hizkuntza jakin ez arren programan izena eman zuena. Masterrean izan genuen lehen edo bigarren irakasleak galdetu zigun ea zein hizkuntzatan emango zituen eskolak, eta nik erantzun nion gaztelania eta katalana biak ulertzen nituela antzeko, alegia biak gaizki [barreak], beraz hobe zela katalanez egitea, horrela ikaskideak behintzat beren ama-hizkuntzan jardungo zirelako. Uste dut harrezkeroztik eduki dudala hizkuntza gutxituekiko kontzientzia.

> ***“Gauza bat esango dizut: oso lagungarria da ingelesik ez jakitea katalana eta gaztelania bizkorrago ikasteko!”***

Dena den, bide akademikoarekin jarraitu zenuen, eta doktoregoa hasi.

Nire tesi-zuzendariak, Jordi Garretak, doktoretza egitea proposatu zidan masterraren lehen ikasturtea amaitu nuenean. Harrituta geratu nintzen: orduantxe ari nintzen-eta eskolen %65 ulertzen hasten! Baina animatu egin ninduen, eta beka bat eskatzea proposatu zidan. Nik ez nekien zer esan nahi zuen bekaren kontu horrek. Alba elkartean ari nintzen lanean, eta azaldu zidanean lau urtez mila euroko soldata garbia jasoko nukeela, zertarako-eta ikasteko, baietz esan nion.

Garai hartan, beka eskatzeko, gauzarik garrantzitsuenak unibertsitatea eta irakaslea ziren, ez ikaslearen curriculuma. Horren trukean lan batzuk egin behar zenituen unibertsitatearentzat edo ikerketa-taldearentzat. Eman zidaten beka, eta horrela sartu nintzen mundu akademikoan. Eta ez dut mundu hori utziko herrialdeko presidente izatea eskaintzen didaten arte [barreak].

Tesia egiteko bidean jarraitzen duzu.

Zein da gaia?

Hor sartu nahi duzu benetan? Badago norbere tesia hiru minututan azaltzeko sari bat; ni ez nintzateke gai izango ordu erdian azaltzeko ere! Baina laburpentxo bat egingo dizut: nire gaur egungo tesia, laster bukatu nahi dudana, jatorri migratzaileko pertsonak harrera-gizartean integratzeari buruzko teorien kritika bat da, marxismo ez-ortodoxotik egina.

Gaia asko aldatu da hasi zinenetik, ala?
Egia esan, hazia ez da inoiz aldatu. Kritika nondik egiten dudan aldatu da. Banekien teoria hauek kritikatu nahi nituela, baina 2012tik aurrera kokatu naiz marxismo ez-ortodoxoan.

Horra hor beste kronograma bat, nire bizitzako kronograma epistemologikoa: zer marko teorikotan kokatzen naizen. Tartean behin berritu egiten da marko hori, baina gauza bat ez da sekula aldatu: feminismoa. Hori 7 urtetatik daukat. Marxismoa beranduago etorri da.

Zer da kritikagarria iruditzen zaizuna?
Alde batetik, maila abstraktua edo epistemologikoa dago, kontzeptuei edo zenbait gauzaren kontzeptualizaziori egin ahal zaion kritika. Zentzu horretan, nire tesia teoriko samarra da, funtsean kulturaren eta kultur diferentziaren kontzeptualizazioa kritikatzen duelako.

Maila praktikoari dagokionez, ez diot denborarik eskaintzen tesian, baina adibide bat jarriko dizut. Niri beti esaten didate oso ondo moldatzen naizela katalanez, gertatzen den guztiaren berri daukadala... Jendeak, halako laudorioak esaten dizkidanean, ahaztu egiten du gauza argi bat: nor naizen eta nondik natorren. Ni ez nator klase ertain-altuko familia batetik, baina pertsonaren migrazio-prozesuak, herrialdean sustraitzeko izan duen prozesuak eta haren errealitate ekonomikoak argi eta garbi baldintzatzen dute hizkuntza ikasteko gaitasuna eta herrialde bateko kulturan sartzeko gaitasuna, sareak sortzeko gaitasuna, besteei gustagarri suertatzeko gaitasuna. Jendeak uste du hori dena nire meritua dela, nire izaerarekin lotuta dagoela. Ba ez. Nire errealitate sozioekonomikoarekin zeharo lotuta dago.

Kataluniako erabakitze-eskubidearen aldekoa zara. Nola eragiten du orain arte aipatu dugun guztiak zure ikuspegian?
Auzi oso garrantzitsu batzuk daude, eta horiei heldu behar diete ez bakarrik borroka eta erresistentzia horretako figura politiko nagusiek, baita herri katalanak ere bere osotasunean: batetik, auzi feminista dago, edo, funtsean, politika feminista, hau da, emakume katalan gisa nola ekingo dugun proiektu politiko honetan, diskurtso politikoak ordezkatzen gaituen ala ez, espazioa ematen digun ala ez; ematen ez badigu, hartu egingo dugu.

Eta, bestalde, zer egoera daukaten eta nondik eta nola batuko diren proiekzio politiko honetara jatorri migratzaileko herriak, arrazakeriaren aurkako mugimenduak eta herrialde osoko erresistentzia-mugimenduak. Adibidez, errepublika katalan berri honetan zer erantzun emango diogu arrazakeria instituzionalari? Nik hortik hausnartzen dut eta hortik jardun naiteke.

Adibide konkreturik eman zenezake?
Errepara diezaiogun katalan-eskolen antolaketari, esate baterako. A mailako eskolak goizez, arratsaldez eta iluntzean ere eskaintzen dituzte. Baina B eta C mailetan, zer ordutegi daukagu?

Goizez bakarrik.
Bai. Eta zein joan daiteke? Zer pertsona joan daitezke horra eta zer baldintzatan? Nik oso ondo ikasi dut katalanez, bai, baina denbora eduki dut horretarako. "20 urte daramate hemen, eta ez dakite katalanez". Ba agian ez dakite katalanez ez daukatelako norekin hitz egin.

Halako esaldiak entzuten ditudanean nik beti galdetzen dut gauza bera: zenbat lagun min dauzkazu, jatorri atzerritarrekoak? Oso galdera ona da. Eta ez naiz ari jende kosmopolitari buruz,

hemen ondoan dagoen nire lankide Alp [Öktem] bezalakoei buruz, zeina Pompeu Fabra unibertsitatera etorri baitzen doktoretza egitera beka batekin. Horrek ez du balio. Gu ez gara Kataluniako migratzaileen gehiengoaren errealitatea.

Lankidea aipatu duzu, eta badugu garaia Col·lectivaT kooperatibaz hitz egiteko. Zer da eta noiz sortu zenuten?

2015ean hasi ginen kooperatibaren ideia lantzen, eta 2017an osatu genuen formalki. Bost bazkide-sortzaile gara. Gutako lauk jatorri turkiarra dugu, eta beste kidea jatorri italiarrekoa da. Hizkuntza eta herri minorizatuekin lan egiten dugu, haientzat eta haiekin, hiru arlotan: teknologia linguistikoa, gizarte-zientzietako ikerketa eta hizkuntzak/itzulpena, ikuspegi feminista eta antiarrazista batetik abiatuta betiere.

Gizarte-zientzietako ikerketaren arloan, adibidez, migrazioen edo lurralde minorizatuen markoa ikertzen dugu –lurralde kurdua esate baterako– baina orobat aztertzen dugu zein den zenbait kolektiboren egoera halako herri eta nazio minorizatuetan.

Eta teknologia linguistikoaren adarrean?

Baliabide teknologikoak sortzen ditugu hizkuntza minorizatuentzat eta estaturik gabeko nazioetako hizkuntzentzat. Katalana da bat. Gaur egun, hizkuntza judutar-espainiar batekin ari gara lanean, ladinoa, Europako proiektu baten bitartez, eta, aurten, amazigerarekin lanean hasi gara halaber.

Ahots-sintesia, itzulpen automatikoa, hizkuntz eta kultur baliabideak digitalizatzea, gordetzea eta eskura jartzea, hizkuntzen ikaskuntzarako material digitala sortzea… Halako gauzak egiten ditugu.

Hirugarren arloa falta zaigu: hizkuntzak eta itzulpena.

Esate baterako, *El sol del Nord. Construint l'autonomia a Bakur* (Iparraldeko eguzkia. Autonomia eraikitzen Bakurren) filmaren azpitituluak egin genituen. Kide oso maite batzuen proiektua da [Ivardia Produccions], Turkiaren mende dagoen Ipar Kurdistaneko egoerari buruzkoa.

Turkiar jatorrikoa izanik, zer dakar zuentzat halako zerbaitetan parte hartzeak?

Kooperatiba honetako bazkide gehienak Turkian jaiotakoak gara, eta ez gara minoria bateko kideak, hau da, denok jaio gara turkiera mintzatzen den familietan. Nik ez dakit zein izango den gure jatorri etnikoa, baina niretzat gauza bat argi dago: Turkian, kurdua zara ala ez zara –edo, beste neurri batean, minoria erlijioso batekoa zara ala ez–; hortik aurrera, nahi duzuna esan dezakezu zure etniari buruz, baina turkiarra zara, hau da, zure eraikuntza identitarioa ez da zapaldua izan beste talde horiena bezala. Horrenbestez, halako proiektu batean parte hartzea apustu politiko bat da guretzat, bat egiten du gure beste ardatzekin.

Besterik esan nahi zenuke?

Bueno, kooperatibaren hiru lan-ardatzak aipatu ditugu, baina, horretaz guztiaz gainera, lan erreproduktiboa, zaintza-lanak eta abarrak ere egin behar dira egiturari eusteko, jakina. ●

Ez zaitzatela ekonomiarekin engainatu

ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Bizitzaren gauzak direla-eta, Ekonomia Politikoa ikasgaia lantzen ari naiz berriro. Ikasgai hori oso interesgarria izan daiteke, sistema ekonomikoak aztertzen dituen ekonomiaren adarra baita. Dena den, nire eskuetara heldu den materialean, azterketa makroekonomikoan "oreka" kontzeptua da nagusi, estatuaren papera keynestarra edo neoliberala da, eta sozialismoa Sobietar Batasuneko sistema ekonomikoa da, hots, planifikazio zentralizatu autoritarioa. Ikasgaia ortodoxia ekonomikoan oinarrituta dago, nahiz eta XXI. mendean argi geratu diren ikuspuntu horien gabeziak eta akatsak. Hori jakinda ere, akademian irakasten jarraitzen da, nire harridurarako.

Prestakuntza intelektualaren oinarriak funtsezkoak dira; feminismoak agerian utzi digunez, erabiltzen ditugun betaurrekoen arabera, munduaren ikuspegi bat ala beste izango dugu. Mundu hori eraldatzeko, betaurreko horiek baldintza batzuk jarriko dizkigute. Ekonomia Politikoaren alorrean, jasotako ikasketak zeintzuk diren identifikatzea garrantzitsua da. Zein pentsamolde edo ideologia daude atzean? Ideien pluraltasuna nagusi da, ikuspegi kritikoa sustatuz, ala era aseptiko eta zientifizista batean errealitate bakarra (edo bakar batzuk) landu dira?

Adibidez, lan arloan, merkatu horren orekan eragina dute gutxieneko soldatak eta sindikatuek. Oreka helburutzat hartuta, teoria neoklasikoa atzean izanik, bi elementu horien eragina negatiboa izango da, prezioaren orekatik eta kantitatearen orekatik aldenduz. Horren ondorioz, soldata altuago eta lan baldintza hobe batzuk negatiboak izango al dira, orduan? Norentzat? Gainera, frogatuta geratu da ezin daitekeela baieztatu gutxieneko soldataren hazkundeak enplegu mailan eragin negatiboa duenik.

Ekonomia Politikoaren alorrean, jasotako ikasketak zeintzuk diren identifikatzea garrantzitsua da. Zein pentsamolde edo ideologia daude atzean?

Bestetik, merkatu marjinalistak ditugu, honen adibide esanguratsuena Europako merkatu elektrikoa izanik. Merkatu lehiakor bat marjinalista da: unitate guztiak merkatuan sartzen den azken unitateak ezartzen duen prezioan trukatzen dira. Ekonomia fakultateetan irakasten da, era akritiko batean, zeozer naturala izango balitz bezala. Elektrizitatearen prezioaren azken norabidea ikusita, baita honen atzean dauden interesak ezagututa ere, neutraltasunez jantzitako tresnaren alde ilunak pairatzen ari gara. Merkatu marjinalista lehiakorra baita, aditu (neoklasikoen) arabera.

Sozialismoarekin antzekoa gertatzen da. Ekonomia fakultate gehienetan, estatuak planifikazio zentrala aplikatzen duenean sozialismoa dela irakasten da. Merkatu "askearekin" kontrajartzen da, bi horien arteko erdibidea ekonomia mistoa izanik. Sinplifikazio horrek "sozialismoa edo askatasuna" lelo politikoa eta antzeko ergelkeriak hedatzen laguntzen du. Azken finean, logikoa dirudienak atzean karga ideologiko oso handia du.

Hori da ohiko ekonomista askoren azalpenen atzean dagoen logika. Errealitate ekonomikoaren konplexutasunak albo batera uztea, edo hitz teknikoekin aukera zehatz batzuk hautatzea, aukera ideologikoak direnak. Gaur egun, oraindik ere ekonomia irakasten denean, indarrean mantentzen da logika hori.

Ikuspegi integratzaileak behar ditugu, diziplina anitzekoak, konpartimentu independente eta isolatuak atzean uzten dituztenak. Ikuspegi murriztaileetan txapelduna den ohiko zientzia ekonomikoa gainditu behar dugu. Joan Robinsonek aipatzen zuen moduan, ekonomia ikastearen helburua ez da galdera ekonomikoei aurrez egindako erantzunak eskuratzea, ekonomialariek engainatu ez gaitzaten ikastea baizik. ●

Euskalduntxarrak

JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

Hala Bedi Irratiko *Euskalduntxarrak* irratsaioa ekarri du gogora ARGIA aldizkariak Korrikaren testuinguruan. Ikasle gasteiztar talde bati, euskara menperatzen ez dutela onartzeak eta akatsez barre egiteak, AEK-ko mikrofono aurrean mingaina askatzeko balio izan dio.

Egitasmo horrek Bilboko zenbait lagun ekarri dizkit gogora: C1 titulua izan arren, mahai-inguru edo hedabide batean euskaraz hitz egitera ausartzen ez direnak; edota B ereduan ikasitakoak, dendena ulertu arren, egunerokoan euskaraz esaldi bakar bat ere esaten ez dutenak. Lagun horiek guztiak emakumeak* dira; nire ustez, patriarkatu judukristauan hiru emoziok bereziki baldintzatzen dutelako gure subjektibitatea:

Lotsa.

Plazandreok zigor bikoitza jasotzen dugu jendaurrean hanka sartzen dugunean, Isabel Valdés *El País* egunkariko genero korrespontsalak Euskal Herriko Unibertsitateko jardunaldi batzuetan azpimarratu duenez. Hanka sartu barik ere, badakigu gure jarduna (eta gorputza) gizonena baino gogorrago epaituko dela. Emakumeek hedabideetan duten partaidetza eskasari buruz ari zen Valdés; aditu edo tertuliakideak aurkitzeko zailtasunez. Ez da kasualitatea Ana Botellaren "*relaxing cup of café con leche*" pasa izana historiara, eta ez edozein gizonezko politikariren ingeles kaskarra.

Errua.

Deigarria iruditzen zait: gogoan ditudan lagun horiek konplexu gutxiago dituzte ingelesa lardaskatzeko orduan. Zer gertatzen zaie euskararekin? Nago kulpak baduela zerikusia. Euskara da gure herriko hizkuntza, euskaldun egiten gaituena, menperatu beharko genukeena. Gure buruari egurra ematea ez da lagungarria.

Autoexijentzia.

Aizpea Otaegi eta Jaime Altuna ikerlariek azaldu digute andreak direla euskaltegietako ikasle gehienak eta, aldi berean, gizonek baino autopertzepzio negatiboagoa adierazten dutela euskararekin duten harremanaz galdetzen zaienean. Uxue Alberdik *Kontrako eztarritik* liburuan izendatutako zapalkuntza patriarkalaren mekanismoen artean ere nabarmentzen da emakumezko bertsolariek sentitzen duten "autoexijentzia suntsitzailea".

Gatx Eizaguirre Agousen artikulu akademiko batean irakurri dut hurrengo gogoeta: "Sentsazio fisiko zein emozioen azterketa interesgarria izan liteke hizkuntza antropologiaren eta antropologia feministaren arteko uztarketarako, esaterako, lotsa. Euskal Herriko testuinguruan euskaraz mintzo diren zein pertsona edo kolektibok sentitzen dute erdaraz aritzean lotsa? Euskaraz ikasten ari diren zeintzuk subjektuk sentitzen dute lotsa? Euskaraz ez dakiten zein pertsonak sentitzen du euskaraz ez jakiteagatik? Nolakoa da lotsa hori gorputzean eta zein ondorio ditu? Isiltasunarekin lotzen al da? Lotsa horrekin agentzia ariketarik egiten al da? Lotsa horiek nola lotzen dira genero-, klase-, arraza-desberdinkeriekin?…"

Nire Kataluniako bikotekide bollera eleanitzak euskaltegiko mintzamen proba guztiak suspenditu ditu. Zer lotura dago ahalduntzearen eta mintzamen proben emaitzen artean? Nork hartzen du gehiago hitza mintzapraktiketan? Ezagunen batek aitortu dit ez dela BIRAko Berbalagun feministara gerturatzen lotsa ematen diolako, maila nahikorik ez duela uste duelako. Zer egin daiteke euskalduntze prozesuetan hau guztia aintzat hartzeko?

Ez dut erantzunik, baina euskalduntxarren filosofia zoragarria iruditu zait umorearen bidez emozio horiek lantzeko. Baita La Furia raperoaren txioa ere: hemendik aurrera euskaraz arituko dela, hanka sartu arren, "eta ez gustatzen bazaizu ba ahal dozue *comerme todo el coño*". ●

Marx, oligarkak eta errenten akordioa

ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Kapitala liburuan, Marxek bi lehia nagusi deskribatzen ditu: lanaren balioaz jabetzeko gatazka, kapitalaren eta lanaren artekoa; eta lehen gatazkatik erauzitako gainbalioaz jabetu eta berau irabazi bilakatzeko enpresen arteko konpetentzia. Bigarrenean, sektore bereko salmenta-prezioen lehiaz gain, ekoizpen-prozesuan enpresek elkarri salerosten dizkieten ondasun eta zerbitzuen prezioen bidez ere lehiatzen dira gainbalioaren ahalik eta zati handienaz jabetzeko. Esaterako, enpresa gutxi batzuen esku dauden merkatuetan, energetikoa kasu, enpresek oligarka gisara jokatzen dute prezioak kostuen gainetik ezarriz. Horrela, gainbalioaren eskualdaketa nabarmena gertatzen da –zerutik jausitako irabaziak–: argindarraren faktura ordaintzen duen enpresaren etekinak murrizten dira, elektrikenak puztuz.

Marxen irakurketa hartatik 150 urte baino gehiago igaro direnean, Espainiako Bankuak 2022-2024 aldirako aurreikuspen makroekonomikoen txostena atera du. Bertan, 2023rako inflazioaren iragarpena %2koa da. Horretarako, estatu zentralean zein Europako esferetan aspalditik entzuten denaren ildotik, diote soldatak ezin direla prezioak adina hazi. Nahiz eta, Ukrainako gerra gorabehera, inflazioaren eragile nagusia energiaren prezioa izan eta ez soldatak. Bide beretik irten da Espainiako Gobernua, itxuraz 2012kotik desberdina den estrategia bat proposatuz eta errenten akordioaz hizketan: bai lanak bai enpresek sakrifizioak egin beharko dituzte aurrera atera eta ekonomia berriz ere haz dadin, klaseen arteko akordio baten bidez.

Baina itxuratik harago errealitatea bestelakoa da. Inflazio testuinguru batean soldatak ez igotzeak, berriz ere, krisitik ateratzeko soldata-debaluazio estrategia baten alde egitea dakar, lanari erauzten zaion gainbalioaren zatia hazten den bitartean. Elektrika handiek irabaziko dute gehien, ez soilik etxeetara iristen diren fakturen bidez, beste enpresetara iristen direnekin ere. Beraz, enpresa guztiek ez dituzte irabaziak handituko, enpresen artean ere irabazleak eta galtzaileak egongo dira, baina lana izango da bere osotasunean debaluatuko dena. Espainiako Gobernuak zerga jaitsierak eta kontsumorako diru-laguntzak eskaini ditu, dena defizit publikoaren kontura. Fiskalki atzerakoiak diren neurriak dira, eskema bera aldatzen ez dutenak eta arazoaren funtsari heltzen ez dietenak. Badirudi, beste behin ere, krisiaren kostuak langileriari ordainaraziko zaizkiola. ●

Armak eta kontraesanak

LAURA MINTEGI LAKARRA
IDAZLEA

Erasoa jasaten ari denari defentsarako baliabideak eman ala ez. Kontraesana aitortu behar dut eta susmoa dut ez naizela bakarra.

Hitza aldarrikatzen dugu. Konponbidea adostasunaren kulturatik datorrela, logika belizista baztertu behar dela, bortizkeriak bortizkeria dakarrela, espirala amaigabea dela. Indarraren legeak indartsua egiten du irabazlea, diogu, eta ahula galtzaile. Indarrak, gainera, ez dituela bermatzen justizia eta egia; eta ez dela eutsigarria, justizia-egarriak burua aterako duelako, noizbait. Baina zer egin hitza indarrez akabatzen denean?

Herri honek Orreagako iruindarren balentria goraipatu du, frankoak harrika hartu zituztenean; txalotu ditu Frantziako erresistentziaren sabotajeak III. Reich-aren aurka eta, berrikiago, gudarien armatzea ulertu du, Francoren inbasioa lehenago, eta frankismoaren zapalkuntza geroago, borrokatu denean.

Justifikatuta dago armak hartzea erasotzailearen aurrean? Badirudi defentsa armatua justifikagarriagoa dela erasoa hurbilagoa denean. Tiranizidioa ere justifikatu da, zartada larrutik ordaindu denean. Urrunagoari begira, ordea, argiago ikusten dugu bortizkeriak bortizkeria dakarrela. Kontraesanak janda. ●

Geratzeko etorri diren kezkak

MIKEL GOMEZ
SUKAR HORIA-KO KIDEA

Aktualitatea abiadura bizian doan gurean, geratzeko etorri diren zenbait gairi buruzko kezkak dira hauek:

Argindarraren fakturaren igoerak sortutako polemika berriztagarrien alde egiteko eta eredua publikoa egiteko aprobetxatu beharko genuke. Bai, badakit berriztagarri modernoak kutsagarriak direla, baina kontuz "fosilismoaren" tonto erabilgarriak bilakatzearekin. Lehengo negazionistak orain trantsizio energetikoa ahalik eta gehien atzeratzea helburu dutenak dira. Eredua modu ahalik eta planifikatuenean aldatzea edo era kaotikoan gertatzea da jokoan dagoena.

Hori bai, digitalizazioaren mantra nonnahi, baina digitalizazioa "gaurko ogia eta biharko gosea da" (literalki). Nondik erauziko dugu horrenbeste kobre, nikel edo neodimio? Hamarkada batzuk barru Lurra infinitua dela uste dutenak izango dira gaurko "terraplanistak".

Bestalde, Hego Euskal Herrian bizi garenoi, Ukrainako gerrak erakutsi digu Aljeria dela gure gas hornitzaile nagusia; bertako gas erreserbak dezente murriztu dira ordea. Agian, urte batzuk barru, suntsipen handiko armak dituztela esango digute... Okerrena da klima aldaketa berrien artetik desagertu dela, energiaren txanponaren beste aldea ez balitz bezala. Gainera, ematen du balizko guda nuklear batek ateak ireki dizkiola milioika pertsona akabatzearen ideiari. Zertarako orduan klima aldaketarekin kezkatu? Benetan, flipatzen nago Borrellen nibelarekin...

Badakigu eliteek ez dietela kiroltasunez euren pribilegioei uko egingo, baina kontsentsu liberalak eskumatik gainditzen ari diren Europan, ikusteke dago askatasuna autokarabanan milaka kilometrotara irudikatzen duten langileen bilakaera

Bitartean, instituzioei neurriak exijituz iragan asteko zientzialarien desobedientzia ekintzak miresgarriak bezain surrealistak iruditu zaizkit. Imajinatzen duzue halakorik, ez dakit, COVIDarekin?

Garraiolarien grebak agerian utzi du gure oinarrizko premiak ere petrolioaren menpekoak direla. Globalizazioaren ajeak, badakizue, eta dieselaren krisia ate joka daukagu... nolakoak izango dira etorkizuneko protestak eta matxinadak? Errealitatea konplexuegia da betiko eskema dikotomikoekin aztertzeko. Barkatuko didazue, baina Iraultza Proletario ahalguztidunaren mitoa gauzak gehiegi sinplifikatzea dela iruditzen zait.

Eskasia etorri aurretik, mugak ezarri beharko genizkieke zenbait produkturi, gasolinari adibidez. Badakigu eliteek ez dietela kiroltasunez euren pribilegioei uko egingo, baina kontsentsu liberalak eskumatik gainditzen ari diren Europan, ikusteke dago askatasuna autokarabanan milaka kilometrotara irudikatzen duten langileen bilakaera, edo munduko beste puntara bidaiatzeko "beharra" dugun ezkertiar askorena.

Laburbilduz, noraino gaude soka tenkatzeko prest?

Antzeko kezkak badituzu, ez galdu udazken honetako ekologismo eraldatzailearen jardunaldiak! ;-) ●

NAFARROAREN EGUNA

2022·04·30 — BAIGORRI

IRRATIAK berria ARGIA euskalerriairratia

Desazkundea: *mehatxu edo aukera*

Desazkundea proposatzen dute gero eta zientzialari gehiagok ingurumen-larrialdi globalari aurre egiteko irtenbide gisa: hazkunde ekonomiko mugagabeari uko egin, eta gizarte honetako produkzio- eta kontsumo-ereduak aldatzea. Jasangarritasuna eta giza ongizatea hobetu ditzakeela diote, hausnarketa sakon bati helduz gero. Ekonomiaren, antropologiaren eta hirigintzaren ikuspegitik heldu diogu eztabaidari.

AITZIBER AGIRRE RUIZ DE ARKAUTE / elhuyar ALDIZKARIA

Coloradoko Unibertsitateko hainbat zientzialarik gizartea desazkunderako prestatzen hastea proposatu dute berriki. Izan ere, iragarpenek diote herrialde aberatsetako hazkunde ekonomikoa asko motelduko dela: biztanleria zahartzen ari delako, ekonomia produkzio-sistema batetik zerbitzu-sistema batera pasatzen ari delako, zor publiko zein pribatua eutsiezina delako... Ikertzaileen ustez, gure garaia –etengabeko hazkunde ekonomikoarena– anomalia historiko bat besterik ez da izan. Iraultza industrialean hasi, eta gure begien aurrean emango du bere azken hatsa. Gizakion historian inoiz izan den hazkunde ekonomikorik bortitzena izan da.

Sortu duen kolapso ekologikotik ateratzeko, ez da nahikoa teknologia berdeek egin dezaketen ekarpena. Karbono gutxiko teknologia guztien potentziala aztertu dute, eta teknologia horien hedapen baikorrena ere ez litzateke nahikoa izango 2050erako proiektatutako energia-eskaerari erantzuteko. Beraz, desazkundea gizarteak kontzienteki aukeratu dezakeen irtenbidea ere bada.

Houstoneko Unibertsitateko D. Vollrath ekonomia-ikertzailearen arabera, giza ongizatean izan diren aurrerapenek berek sortu dute hazkunde ekonomikoaren beherakada. Hain zuzen, emakumeek eskubideetan emandako aurrerapausoek ekarri dute jaiotze-tasa murriztea eta, beraz, eskulana gutxitzea; eta ondasun materialak hainbeste ugaritu izanak eragin du zerbitzu-ekonomiarantz aldatzea. Beraz, giza ongizateko aurrerapenek eragindakoa bada desazkundea, zergatik ulertu mehatxu gisa?

Arazo edo aukera, desazkundeak erronka ekonomiko eta sozial nabarmenak ekarriko dituela uste dute Coloradoko ikertzaileek, eta, prestatu ezean, ondorio gogorrak eragin ditzakeela. Hasteko, herrialde aberatsetan, belaunaldi hau izango da bere gurasoek baino aberastasun-maila txikiagoa izango duen lehenengo belaunaldia.

Desazkundeak ekar ditzakeen aukera eta erronkei buruz galdetu diegu Amaia Pérez Orozco ekonomialariari, Xabi Odriozola Ezeitza antropologoari eta Miren Vives Urbieta arkitektoari.

BEREZ EUSTEN EZ DEN BIZIMODUA

"Ezinbestean, gutxiagorekin bizitzen ikasiko dugu. Materia gutxiago erabiliz, energia gutxiago erabiliz eta hondakin gutxiago sortuz. Desazkunde metaboliko bat egongo da, bai ala bai. Ez da guk aukeratu dezakegun zerbait", dio Amaia Pérez Orozco Colectiva XXK taldeko ekonomialariak. "Jokoan dagoena da nola egingo den, hobeto antolatzeko eta hobeto bizitzeko baliatu nahi dugun".

Izan ere, ekonomiaren oso ikuspegi murritza eta bidegabea dugula uste du Pérezek. "Ikusi behar dugu oraingo gure bizimodu honek ondasunak metatzea duela helburu, baina ez ongizatea. Eta metatzeak eskatzen du besteei kentzea, ezinbestean. Planetako beste muturrean

Amaia Pérez Orozko ekonomialariak dioenez, desazkundea guztiz bideragarria da ekonomikoki, baina horretarako ezinbestekoa litzateke zerga erreforma sakona, besteak beste iruzur fiskala eta paradisu fiskalak jazarriz.

CC0 1.0

Miren Vives arkitektoaren esanetan, ez dira bota behar eraikin zaharrak: "Eraikinak birgaitzea eta eraikita dauden auzo batzuk dentsifikatzea da gakoa".

daudenei baliabideak kentzea, hurrengo belaunaldiei ongizatea lapurtzea... Eta baita besteei bizitza-denbora kentzea ere, zeren bizitza laboralak eskatzen digun erritmoari jarraitzeko ezin baitugu egin bizitzak berezkoak dituen zaintza-lanak. Ezin ditugu etxekoak eta ingurukoak behar bezala zaindu. Beste norbaitek egin behar ditu oinarrizko lan horiek gure partez; besteen bizitza kontsumitu behar du. Ez da berez eusten den bizimodu bat".

"Antolaketa ekonomiko berri bat behar dugu", dio Pérezek. "Gizartean egiten den lanaren erdia merkatutik kanpo egiten da: zaintza-lan horiek, esaterako. Ezin dugu jarraitu lan hori guztia gutxiesten eta ez ikusiarena egiten. Zaintza-lanek energia eta denbora eskatzen dute. Antolaketa ekonomiko berriak, agian ordaindu ez, baina bere baitan hartu beharko ditu bizitzari eusteko behar ditugun prozesu guztiak. Oraingoak bizitza desegiten du".

Giza ongizateak ez du zerikusi handirik aberastasunak pilatzearekin. Hainbat ikerketek erakusten dute gehiago asetzen gaituztela harreman sozialek, hezkuntzak, bizitzarekiko gogobeteta sentitzeak, lana eta bizitza pertsonalaren arteko orekak, gizartearekiko konpromisoak... Garrantzitsua da gizarteak giza ongizatea zer den birhausnartzea, desazkundearekin gerta bailiteke aurrerantzean ez egotea soldatapeko lana denontzat. Asteko lanorduak murriztu, eta lana denon artean banatu beharko da. Gure bizitza berregituratzea eska lezake.

"Guztiz berrantolatu beharko ditugu lanak", uste du Pérezek. "Lehenik, pentsatu behar dugu zein diren beharrezkoak. Baina ez zeinek ematen duen aukera barne produktu gordina gehiago haz dadin; argitu behar duguna da zein diren gizarte modura ondo bizitzeko beharrezko ditugun lanak. Industriak eta teknologiak ez dute dena konpontzen. Agian, beharko ditugu osasun-sistemako lan gehiago, menpekoei arreta ematekoak, lehenengo sektorea jasangarria egiten dutenak...".

"Eta niretzat bada beste kontu bat gakoa dena eztabaida honetan: herritarrok jasotzen ditugun zerbitzu sozialak konpentsatzeko modu berriak pentsatu behar ditugu. Zergatik lotzen ditugu gizarte-eskubideak lan ordainduarekin eta Gizarte Segurantzan kotizatzearekin? Agian, osasun-sistema eta pentsioak eskubide unibertsalak izan beharko lirateke. Alegia, esango nuke desazkunderako prestatzeko modua dela bizitza desmerkantilizatzea, eta bizitza sostengatzeko behar ditugun egiturak kolektibizatzea".

ERREFORMA FISKALA

"Nola eutsi daitekeen hau monetarioki? Agian, gure buruari galdetu beharko geniokeena da nola sostengatu ditugun orain arte merkatu horiek, zaintzari dagozkion lan guztiak ikusezin bihurtuta eta baztertuta. Eta bigarren galdera da nola egin nahi dugun hemendik aurrera. Gero bilatuko dugu hori dena monetarioki sostengatzeko modua. Ezin du izan horrek lehenengo galdera", dio irmoki Pérezek.

"Ekonomikoki bideragarria da, gainera. Baina, horretarako, botere korporatiboari boterea eta baliabideak kendu behar zaizkio. Nola? Erreforma fiskal sakon batekin. Iruzur fiskala eta paradisu fiskalak jazarri behar dira, eta enpresa handien fiskalitatea aldatu (ez baitute ia ezer ordaintzen). Erreforma fiskal batez igo ditzakegu sozietateen gaineko zergak, dirutza handien gaineko zergak, ondarearen gaineko zergak, eta errentaren gaineko zerga benetan progresibo bat ezarri, asko dutenek proportzioan

CC0 1.0

Miren Vives: "Hala, auzoan eta kilometro bateko erradioan izango lituzke jendeak beharrei erantzuteko behar dituen zerbitzuak. Oinez edo bizikletaz egiteko moduan".

ordaindu dezaten... Dirua lortzea ez da benetako arazoa. Eusko Jaurlaritzak Europako funtsei eskatu dien diru-kopuru bera lortuko genuke hemengo zerga-presioa Europar Batasuneko batez bestekoarekin parekatuta bakarrik".

"Baina giltzarria prozesu politiko bat abiatzea da. Gizarteak aldarrikatu egin behar du. Zeren oraingo sinesmenetatik eta egituratik egiten badugu, non botere a eta erabakimena enpresa eta korporazio handiek duten, ez baikara inora iritsiko. Orain dagoen bezala, horrelako erreforma fiskal bat martxan jarriko bagenu, enpresa batzuk alde egitea erabakiko lukete, bai. Baina hau borroka politiko bat da, herritarrok presio politikoz abiatu behar duguna. Niretzat benetako galdera da zenbateko gaitasuna dugun presio kolektiboa egiteko. Prest gaude?".

KAPITALISMOA MUTATZEN ARI DA

"Hain da sostengaezina oraingo antolaketa ekonomikoa, ezen kapitalismoa bere kabuz mutatzen hasia baita dagoeneko", dio Pérezek. "Ikusiko dugun mutazioetako bat da desglobalizazio-prozesu bat gertatuko dela. Pandemian agerian geratu da mundu hiperkonektatu globalizatu hau hiperhauskorra ere badela. Hornidura-kate globalak ere arriskuan egon dira. Beraz, prozesu lokalagoak egiteko joera nagusituko da. Hain sistema handi eta konplexuak ito egin dira beren handitasun horretan. Hori bai, ez badiogu aurrea hartzen eta ez badugu presio politikorik egiten, kapitalismoak bere alde baliatuko du desazkunde-prozesua".

Desazkundea bideragarria da. Baina, horretarako, botere korporatiboari boterea eta baliabideak kendu behar zaizkio. Nola? Erreforma fiskal sakon batekin

Ingurumenagatik, faktore sozialengatik eta ekonomikoengatik ez ezik, subiranotasunagatik eta demokraziagatik ere desazkundea behar dela dio: "Finantza-zirkuituak handiegiak direnean, ezin dituzu ulertu ere egin. Eta nola emango duzu iritzia? Ustez ulertzen dituzten horien eskutan utzi behar ditugu. Bada, ez, gure herriko politikan ekonomikoki esku hartu ahal izateko, ekonomia gertuagokoa behar dugu". Izan ere, ongizateak zerikusi handia du parte-hartze sozial eta politikoarekin.

ERRESISTENTZIA JARRIKO DUGU

Litekeena da, ordea, prozesua erraza ez izatea. Jakin badakigu herrialde aberatsen bizimodua ez dela jasangarria eta guztiz bidegabea dela beste herrialdeekiko, baina asko kostako zaigu ustezko bizimodu pribilegiatu honi uko egitea. Erresistentzia handia jarriko dugu, ikertzaileen ustez. Beraz, desazkundea abiatzeko, gakoa da erresistentzia horren erraietara begiratzea.

Ikertzaileek uste dute desazkundean gizonezkoak sentitu daitezkeela mehatxatuenak. Hortik etor daiteke, beraz, aldaketarako erresistentzia nagusietako bat. Izan ere, litekeena da denentzako soldatapeko lanik ez egotea, eta, historikoki, lan profesionalak –eta horren bidez lortzen den estatus sozialak– eman

die gizonezkoei balio pertsonalaren pertzepzioa. Hala, identitate-krisi bat izan dezaketela uste dute, gizarte-egitura patriarkalekiko nostalgia sentitzeraino.

"Gizarte patriarkal kapitalistan, gizonezkoari ekoizlearen rola esleitu zaio, hornitzaile materialarena. Familiak mantenu fisikorako behar dituen gauzak ekarri behar izan ditu, ohiturari jarraituz. Soldata, azken finean", dio Xabi Odriozola Ezeitza antropologoak. Ia berrogei urte daramatza gizon-taldeak gidatzen eta patriarkatuaren eragina gizonezkoei ikusarazten. "Ekoizle, hornitzaile, babesle, menderatzaile... rol horietan heziak eta haziak izan gara txiki-txikitatik. Gauzak ekoizten dituenean, gizarteak aitortu eta txalotu egin izan du gizonezkoa, eta bere identitate maskulinoa horretan tinko eraikitzeko baliatu izan du. Eta rol hori jokatu ezin duenean, pitzadurak sortzen zaizkio bere identitate maskulinoan. Porrot egin duen gizonaren eredutik hurbil sentitzen da".

"Beraz, gizonezkoek kapitalismo patriarkalaren desazkunde bat onar dezaten nahi badugu, oso aintzat hartu beharko da nola deseraikiko ditugun gizonezkoen hazkuntzarako eskema horren errotuak. Zeren, bestela, desazkundeak euren "desahalduntzea" ekarriko diela uler dezakete. Gizon bezala rol horiek bereganatzeko heziketa estua eta gogorra jasan ondoren, haietaz desjabetzeak beste prozesu bat eskatzen du. Hortaz, desazkundea egin aurretik, deshezkuntza-prozesu bat abiatu beharko genuke", dio Odriozolak. "Eraispen-prozesu horretan gizonezkoek ikusi behar dute beren bizitzak zentzua duela ez egiten dutenagatik, baizik eta sortzez direnagatik; existitzeagatik, izate hutsagatik direla pertsona osoak eta baliotsuak. Hor beren balioa aurkitu behar dute, eta hezkuntza ez sexista eskaini behar zaie. Bestela, etengabe aurkituko dugu bota ezineko pareta bat gizonezkoengan, erresistentzia ikaragarria lortu dutenari uko egiteko. Inkontzienteki, hau sentituko baitute: "Ni ez nauzue desazkundetuko, nire hondamendia ekarriko duzue eta. Nekez lortu dudan guztia pikutara bidaliko duzue".

Urrats hori egiteko kapitalismotik at kokatu beharko genukeela uste du Odriozolak. "Urte asko daramatzat gizonekin lanean, eraispen maskulinoaren oinarriak jartzen, eta kapitalismoak etengabe zapuzten ditu saiakerak, kapitalismoak hor behar dituelako gizonezkoak, kate ekoizle materialista eta sexista horretan itsuturik. Beste egitura sozio-ekonomiko bat eraiki behar dugu, zeinak aukera emango duen gizakiok geure burua balore gizatiarretan ulertzeko, eta produkzio-egitura horren balore suntsitzaileetatik kanpo".

"Dena den, sistema ekonomiko honetan ez dago bakarrik gizona krisian, baizik eta gizakia. Emakumeen eskubideak ez dira aitortu; jende gaztea krisian dago inork ez dituelako hartzen serioski pertsona oso modura; eta adinekoak ere berdin, gizarteak ez duelako aintzat hartzen beren jakituria, beren ekarpena. Gauza bera koloreko pertsonekin, migratzaileekin eta indigenekin".

HIRIGINTZA ETA GARRAIO PRODUKTIBISTAK

Etengabeko hazkunde ekonomikorako premiak gure izana baldintzatu duen moduan, haren dogmapean sortu dira gure egitura sozial guztiak ere. Hiriek eta garraio-sareak berak lotura estua dute

DANI BLANCO

Xabi Odriozola: "Beste egitura sozio-ekonomiko bat eraiki behar dugu, zeinak aukera emango duen gizakiok geure burua balore gizatiarretan ulertzeko".

Amaia Pérez ekonomialaria, **Miren Vives** arkitektoa eta **Xabi Odriozola** antropologoa mintzo dira erreportajean.

egungo ikuspegi produktibistarekin. Hirieredu funtzionalista eta zatituak ditugu, batez ere lau esparru monofuntzionalen arabera antolatu direnak: lan egiteko esparruak (industrialdeak), bizitzeko esparruak, aisialdirako esparruak (merkataritza-gune handiak) eta batetik bestera mugitzeko errepide-sare indartsua (ibilgailu pribatuan oinarritua). Horrek osoki baldintzatzen du pertsonen bizimodua.

Honetan ere, eredu berriak bilatzeko garaia iritsi da. Eremu urbanoak naturalizatzea eta espazio publikoak giza harremanetarako espazio bihurtzea proposatzen du Miren Vives Urbieta arkitektoak. Hirigintza inklusiboa diseinatzen du, eta bizi-kalitatea izateko oinarrizkoak ikusten ditu biak.

"Espazio urdin eta berdeak ezinbesteko baliabideak dira osasunaren eta ongizatearen babeserako eta sustapenerako. Adibidez, orain, Alemaniako uholdeen ondorioz, eremu urbanoak birnaturalizatzea funtsezkoa bihurtu da Europa osoan. Urbanizazioetan lurra iragazgaitza izateak eragin zuen euri-jasaren ondorioz 200 pertsona hiltzea. Beraz, gune urbanoetan ahalik eta hormigoi gutxien erabili, eta lurra iragazkortzearen aldeko mugimendu oso indartsua sortu da. Belarra eta lurra sartuko da berriz. Boom bat izango da".

"Eta animalia sozialak garenez, espazio urbanoak jendearen sozializaziobeharra ase dezaten diseinatu behar dira: eserleku erosoak jarri behar dira nonahi, mahai asko, itzala egingo duten zuhaitzak, euriaz babesteko aterpe handiak, komunak, jolasteko aukera ematen duten egiturak, belarra, hondarra, bizikletentzako aparkalekuak…".

Hirien antolaketa produktibistak berriz ere kanpoan utzitako zaintza-lanak erdigunera ekarri eta gune urbanoen diseinuan integratzea aldarrikatzen du Vivesek. Esaterako, haurrek kalea berreskuratu ahal izatea, libre jolasteko. Edo auzoan ekipamendu komunitario txikiak sortzea: adibidez, hutsik dauden lokaletan adinekoentzat jangelak edo topaguneak sortzea.

Baina horrek guztiak benetan funtziona dezan, hirien egitura sakabanatua baztertzea da gakoa. "Orain, auzoak ez dira autonomoak eta osoak. Eremu monofuntzional eta huts horiek ez dira erakargarriak. Gizakioi gustatzen zaigun da beste gizakiekin elkartzea eta konpartitzea. Beraz, nukleo txikiagoetako egitura multifuntzionalak sortzea da gakoa. "Hala, auzoan eta kilometro bateko erradioan izango lituzke jendeak beharrei erantzuteko behar dituen zerbitzuak. Oinez edo bizikletaz egiteko moduan". Horrek, energia urbanoaren kontsumoa murriztu, eta nabarmen hobetuko luke airearen kalitatea.

"Ez dugu nahikoa baloratzen, baina Euskal Herrian herri askok tamaina ezin hobea dute. Batez ere, Gipuzkoan eta Bizkaian", uste du Vivesek. "Europan ez bezala, oso egoera onean gaude auzo- edo herri-eskala hori lantzeko. Baina garrantzitsua da herrietako saltokiak ez ixtea. Bestela, dena galduko da. Babes ofizialeko etxebizitzak sortzen diren bezala, babes ofizialeko dendak edo ostalaritza sortu beharko dira, auzoak hori behar duela ikusten bada".

Berrantolaketa honek, ordea, ezin du eskatu gehiago eraikitzea. Orain arte, herriak eta hiriak etengabe hazi izan dira beren burua finantziatzeko modua zelako gehiago eraikitzea. Bota ere ez dira egin behar eraikin zaharrak. "Eraikinak birgaitzea eta eraikita dauden auzo batzuk dentsifikatzea da gakoa: 70. hamarkadako langile-etxebizitza zaharrak ondo isolatzea, eguzki-panelak jartzea eta terraza aurrefabrikatu eder bat lotzea. Europatik datorren eredu sendoa da".

Bestetik, mugikortasun-sareak berraztertu beharko dira: "Garraio publikoaren bidez izan beharko dute. Ibilgailu propioarena ez da jasangarria".

Erronka esanguratsuak etorriko dira desazkundearen eskutik, hirigintzan, ekonomian zein antropologian. Etorkizunak esango du hobeto bizitzeko balio izan duten. ●

Umeari traumarik ez sortzeko bidea ez da heriotza ezkutatzea, akonpainamendua egitea baizik”

Naroa Martinez

Psikopedagogoa

Ikasle baten gurasoa hil da, edo ikastetxeko langileren bat, gertukoren bat... Alarma gorria piztu da eskolan eta adituari deitu diote: nola jorratuko dugu gaia ikasleekin? Horrelako deiak jasotzera ohituta dago Naroa Martinez psikopedagogoa, baina krisi uneetan paraxutistarena egin ordez, heriotzaren inguruan irakasleak formatu eta hezkuntza-curriculumean gaia txertatzea eskatu du. Ezetz erantzun dio eskaerari Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak. Martinezek azaldu digu zergatik den funtsezkoa haurrekin hildakoez, doluaz, suizidioaz, sinesmenez, beldurrez, kezkez... hitz egitea ikasgelan.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ DANI BLANCO

Hezkuntza-curriculumean heriotzaren pedagogia gehitzeko eskatuz sinadura bilketa egin zenuen eta Eusko Legebiltzarrera iritsi da eskaera, baina Jokin Bildarratz sailburuak erantzun du ikastetxe bakoitzaren erabakia dela gaia landu ala ez, eta lantzea erabakiz gero nahikoa baliabide badela Berritzeguneetan.

Dauden baliabideak eskasak eta zaharkituak dira, eta baliabide materialak dira, ez dago baliabide pertsonalik. Lehen bazegoen gaian aditu bat, horren inguruan laguntzera joaten zena ikastetxeetara, baina jubilatu zenetik ez dago inor heriotzari heltzen dionik. Curriculumean ere ezer gutxi: bizitzaren zikloa jasota dago, jaiotzaz, nerabezaroaz... hitz egiten da, baina Haur Hezkuntzako curriculuma azkenekoz aztertu nuenean, heriotza hitza behin baino ez zen aipatzen. Halere, Bildarratzen hitzetatik interpretatzen dut Hezkuntza sailburuak ez duela ikusten heriotzari bereziki heltzeko beharrik. Ordea, heriotza bizitzaren parte den heinean bizitza bere osotasunean ulertzeko heriotza ere ulertu behar da, eta gaia lantzea ikastetxe eta irakasleen borondatearen menpe utziz ez da bermatzen heriotzaren inguruan aritzeko ikasleek duten eskubide unibertsala.

Helduok ez gaituzte hezi heriotzaren pedagogian, oro har ez zaigu horretaz hitz egin, eta hori da haurrei transmititzen dieguna, baina joera hori apurtuko bagenu, gertuko heriotza bat suertatzen denean bai haurra bai gu prestatuago egongo gara horri aurre egiteko, heriotzan alfabetatuak egoteak tresnak emango dizkigu etorriko diren doluak aurreikusteko eta prozesua –gutxienez teorian– arintzeko, ezezaguna denak beldur handiagoa sortzen baitu. Gertuko pertsona hiltzea momentu gogorra izan daiteke, baina aurretik gaiaz hitz egin badugu, batzuon eta besteen beldur eta zalantzak aurrez partekatu baditugu, bide asko izango dugu aurreratua eta errazagoa izango da dena, bai umearentzat, bai helduontzat, erremintak garatu ahal izan ditugulako errealitate hori iristen denerako, ulertzeko normala dela gertatzen zaiguna, badugula norekin hitz egin horretaz... Horregatik, aldarrikatzen dut heriotzak zerbait finkoa izan behar duela hezkuntza-curriculumean, ikastetxeetako urteko planean kontuan hartzen

“Txikienekin gehiago izango da bakarrizketa bat, gure beldur eta tabuak hausten joateko, eta zerbait jasoko du umeak, baina batez ere somatizatu egingo du, heriotzaz ari garelarik guri mugitzen zaiguna jasoko du, emozioetatik”

den zerbait, eta horretarako irakasleak formatzea ezinbestekoa da, baliabide materialak baino inportanteago, gaiari buruzko zein ipuin irakurri behar den zehaztea baino inportanteago, alegia.

Badago adinik heriotzaz hitz egiten hasteko? Ulertzen al dute txikienek heriotza? Eta nola azaldu gaia adinaren, ume bakoitzaren errealitatearen... arabera?

Ez dago heriotzaz hitz egiten hasteko gutxieneko adinik, baina ezberdin transmititzen eta jasotzen da heriotza haurraren adinaren eta gaitasunen arabera, zeren adibidez txikienek kontzeptu asko ez dute ulertuko. Jakin heriotza azaltzeko bost direla lantzen diren kontzeptuak: funtzionaltasun eza –euskaraz garbi ezberdintzen dugu: gorputza eta gorpua– eta kontzeptu hau oso lagungarria da txikienei heriotza zer den azaltzeko; itzulezintasuna –honetan kalte handia egin dute marrazki bizidunek, sarri erraz hil eta berpizten direlako pertsonaiak–; kausalitatea –heriotza dela gertatu den zerbaiten ondorioa–; gorputzik gabeko jarraikortasuna –gugan utzi duen ondarea, arrastoa, haren oroimena...–; eta unibertsaltasuna –jaiotzen den izaki oro hilko da–. Bost horiek ulertzen ditugunean esan dezakegu garela gai heriotza bere osotasunean ulertzeko, baina prozesu bat da, txikitan ez dituztelako hainbat kontzeptu ulertzen, horrek ez du esan nahi ezin dugunik haiekin heriotzaz hitz egin: txikienekin gehiago izango da bakarrizketa bat, gure beldur eta kezkak azaleratzeko eta geure tabuak hausten joateko gaizki ez datorrena, eta zerbait jasoko du umeak, baina batez ere somatizatu egingo du, gaiaz ari garelarik edo heriotza bat bizi dugularik guri mugitzen zaiguna jasoko du, emozioetatik. Eta pixkanaka bidea egiten goaz.

Haurtzaroko une batean ohikoa izaten da guztiahaltasun sentsazioa: uste dute beraiek eragin dezaketela heriotza, esaterako norbaitekin haserretu eta hilabetera hil egin bada. Erruduntasuna oso presente dago beti heriotzaz ari garenean, baita helduongan ere –egin izan banu, esan izan banio...– eta inportantea da umeak 5-6 urte inguru dituenean erruduntasuna lantzea, argi uzteko une jakin batean desiratu badu ere norbait hilda egotea, ez dela heriotza horren eragilea. Garai bertsuan, heriotza gerta daitekeela barneratzen dutenean, momentu kritiko bat izaten da eta beldurrak hasten dira, iluntasunari beldurra, norbera edo erreferentziazko norbait hiltzeari beldurra... Horretaz guztiaz hitz egin dezaketela txiki-txikitatik baldin badakite, errazagoa izango da bidea, haien galderek eta ezinegonek gidatuko dutelako zein behar duten une bakoitzean. Nerabezarora iristen direnean, bost kontzeptuak ongi barneratu ohi dituzte.

> “Une batean beldurrak hasten dira, iluntasunari beldurra, norbera edo erreferentziazko norbait hiltzeari beldurra... Horretaz guztiaz hitz egin dezaketela txiki-txikitatik baldin badakite, errazagoa izango da bidea”

Aipatu duzu momentu kritiko bat dela hiltzeari beldurra garatzen dutenean. Horretatik babestu nahi izatea eta haurrari traumarik ez sortzea izan daiteke arrazoia helduok heriotzaz hitz egitea saihesteko?

Gu ez gaituzte heriotzaren pedagogian hezi eta haurrak traumatizatzeko beldur gara, baina nik uste traumatizatuta gu gaudela, hain justu gaiaz hitz egin ez digutelako. Heriotza iritsi iritsiko da, horretaz hitz egin edo ez, baina traumatikoagoa da ezagutzen ez duzun zerbait bat-batean agertzea. Garai batean hildakoak etxean izaten zituzten, baina sarri umeei ezer azaldu gabe, akonpainamendurik gabe, eta orain gaixoak eta hildakoak herrigunetik kanpora atera ditugu, ospitale eta beilatokietara, eta akonpainamendurik egin gabe jarraitzen dugu, hor dugu arazo larrienetakoa. Heriotza etxetik atera eta ezkutatzea ez delako traumarik ez sortzeko bidea, akonpainamendua da traumarik ez sortzeko bidea. Berdin eskolan: heriotzari buruzko ipuin edota film on bat gomendatu diezazuket, baina ez badugu gaia mahai gainean jartzen eta horretaz hitz egiten, bai haurrek bai helduok ditugun beldurrak eta galderak ez baditugu azaleratzen eta ez badugu elkarren akonpainamendurik egiten, jai dugu.

Haurrak galdetu didala hilko ote naizen? Ba ez diot gezurrik esango, jakinik haurrek galdetzen dutela ulertzeko gai direnean, eta kokatu behar dugu gure burua erantzun horren aurrean umea eutsi ahal izateko. Baietz, noizbait hilko naizela esango nioke, baina espero dudala ahalik eta beranduen izatea eta momentua aprobetxatzea dela egin dezakegun onena, lehen aipaturiko gorputzaren jarraikortasun edo oroimen horretarako bizipenak eraikitzen segi dezakegula.

Heriotza tabu izateko errepikatzen den beste arrazoi bat da dei efektua sortzeko beldurra, heriotzaz hitz egiteak heriotza ekarriko balu bezala.

Beraz, hitz egin dezagun heriotzaz haurrekin. Heriotza natural bizitzeko, egunerokoan jorratu behar omen dugu heriotza. Nola landu gaia egunerokoan?

Nire galdera da, nola ez? Ikasturte osoan, hogei ikasleko gelan, inork ez dizu heriotzari lotutako ezer ekarri uneren batean? Ukrainako gerra dela, covida, hilketa matxisten albiste andana, suizidioen eta suizidio saiakeren gorakada... Mila aukera daude heriotzari heltzeko, baita errealitate hurbilean ere: loreak zimeldu direla, ikasgelako arraintxoak arrain-ontzian hil direla, zuhaitza haizeak apurtu duela, aitona-amonak edo etxeko maskota hil zaizkigula... Duela gutxi, ikastetxe inguruan hildako txoriei haurrek loreak eraman zizkieten eta argazkiak bidali zizkidaten. Zuhaitz genealogikoak egitea ere ohikoa da eskolan, zergatik ez luzatu zuhaitz hori hildakoren bat agertu arte? Hainbeste dira adibideak, zaila egiten zaidana dela heriotzaz ez hitz egitea. Eta kontua ez da uneoro beldurra transmititzea, baina iskin ere ezin diogu egin heriotza gure bizitzen parte dela azaltzeari.

Suizidioa aipatu duzu. Lanketa berezia behar du?

Nik uste suizidioak helduongan behar duela lanketa berezia. Tabuen tabua izaten jarraitzen du, nahiz eta hasi garen pixkanaka bai osasun mentalaz hitz egiten, baita suizidioa gehiago aipatzen ere. 11 urteko haurrak baldin badaude suizidatu direnak edo suizidatzen saiatu direnak, jakin badakite hori existi-

"Mila aukera daude heriotzari heltzeko, baita errealitate hurbilean ere". Duela gutxi, adibidez, Herri Ametsa Ikastola inguruan hildako txoriei loreak eraman zizkieten haurrek.

tzen dela, eta hobe da 5. edo 6. mailatik aurrera [10-12 bat urteko gazteekin] horretaz hitz egitea, gaia saihestea baino. Adin hori jarri dut erreferentzia moduan, ulermen gaitasunagatik gehienbat, baina gerta daiteke gazteagoak direnek eurek jartzea gaia mahai gainean, eta orduan lehenago heldu beharko litzaioke. Ikerketek diote suizidioaz hitz egiteak dei efektua eragin dezakeela, baina aldi berean gehiago izan daitezkeela saihestu daitezkeen kasuak, nora jo eta zein laguntza eskatu azalduz gero. Ezkutatu ordez, heriotzarekin bezala alfabetatu ditzagun suizidioaren gaian ere, zein baliabide dagoen eskura jakin dezaten. Eta bai, lanketa berezia behar du gaiak, estigmatizatuta dagoen eta erruduntasunak eta ardurak pisu handia duten heriotza izanik.

Eskolako curriculumean gaia txertatzeko dagoen beharraren seinale, ikastetxe askotatik deitzen dizutela, gaiaren inguruan aholku eske.

Normalean deitzen didate norbait hil delako edo hilzorian dagoelako eta ez dakitelako horren aurrean gaia nola jorratu ikasleekin; oso galduta egon ohi dira. Ikastetxe bateko zuzendaritzatik eguerdian deitu zidaten, goizean ikasle bat ez zela eskolara joan ama hilda aurkitu zuelako ohean; "eta orain zer egingo dugu"? Berehalako erantzun bat bilatzen dute normalean, eta nik laguntza eta aholkua eman dezaket, baina ezin naiz zure etxera joan esatera nola kudeatu behar duzun egoera; ikastetxeko errealitatea eta funtzionamendua ikas-komunitateak ezagutzen du ongien eta horregatik aldarrikatzen dut ikastetxe bakoitzak garatu behar duela heriotza nola jorratu bere eskolan eta pentsatu eta adostu behar duela protokolo bat halako krisi egoerei nola erantzun jakiteko.

> Heriotza azaltzeko bost kontzeptu lantzen dira: funtzionaltasun eza, itzulezintasuna, kausalitatea, oroimena eta unibertsaltasuna. Bost horiek ulertzen ditugunean esan dezakegu garela gai heriotza bere osotasunean ulertzeko"

Zeintzuk dira irakasle eta haurren galdera, kezka eta beldur nagusiak?

"Orain zer?" eta "zein liburu edo film gomendatzen diguzu?" oso ohikoak dira, irakasleen aldetik. Baina heriotzaren gaia liburu edo film batean delegatzea ez da heriotza jorratzea, hitz egin behar da gaiaz. Gertuko heriotza horren aurrean ikasleak ea traumatizatuko diren jakin nahi izaten dute irakasleek, edo haurrek hiletetara joan behar al duten (lehenengo urratsa da haurrari berari galdetzea, zer aurkituko duen aurretik informatu-

ta). Eta ikasleei dagokienez, inportantea da aukerak eskaintzea gaiaz hitz egiteko, transmititzea heriotzaz hitz egin dezaketela, izan etxekoekin edo irakasleekin, baina dituzten kezkak eta galderak atera ditzatela. Haurren erreakzioetarako prest egon behar dugu, adibidez batek esango dizu aita triste dagoela ama hil delako eta bikotekidea aurkitu nahi diola, edo ez gaitu harritu behar umeei heriotza marrazteko eskatu eta koloretsu egiten badute, Mexikon heriotza bizi duten estiloan. Egiten dituzten galderei labur eta garden erantzutea da onena, batzuetan helduok gu geu konplikatzen garelako erantzunetan, gure beldur eta tabuengatik. Gainera, ez dugu galdera guztietarako erantzuna izango, sarri norberak eraiki behar duelako bere erantzuna, adibidez galdetzen digutenean ea zer dagoen hil ostean; batzuek gauza bat pentsatzen dute eta beste batzuek beste zerbait.

Hain justu, erlijio eta sinesmenak zein rol jokatzen dute heriotzaren pedagogian? Irakasle eta gurasoen azalpen ezberdinak gatazka iturri izan al daitezke?

Nire pauta izaten da familiaren kontra ez joatea, bidea elkarrekin egin behar dugulako. Ikastetxe laiko batean, irakasleak ez du esango hau edo bestea sinesten duela edo sinesmen bat egokia edo desegokia den, gainera gaur egun erlijio eta sinesmen ugari elkartu daitezkeelako ikasgela berean, baita fededun ez diren etxeetako haur asko ere. Ikasleek irakasleari galetzen badiote ea berak zer uste duen, erantzunak behar luke izan berdin duela irakasleak zer sinesten duen, bakoitzak bere erantzuna bilatu behar duela, eta erantzun ugari dagoela gaiaren inguruan, jakin ez dakigulako. Entzutea izaten da onena, ikasle bakoitzak azalpen ezberdinak ekarriko dituelako etxetik eta umeari horrek laguntzen badio, ongi etorria izango da. Azken finean, fededun ez garen familia askotan ere joera dago ipuin moduan ematea azalpenak: "Hildakoa halako izarretan dago orain" modukoak.

Saihestu behar direnak eufemismoak dira. "Betiko lotara joan da" esateak umea eraman dezake lo egin nahi ez izatera, itzuliko ez den beldur; "bidaia luze batera joan da" esateak berriz, abandonu sentsazio izugarria ekar dezake...

Doluak ze bereizgarri ditu heriotzaren lanketan?

Heriotzaren pedagogiak erreferentzia egiten dio heriotza gertatu aurreko lanketari, eta doluaren pedagogiak heriotzaren ostekoari. Bata da aurreko zainketa eta bestea tirita jartzea, eta biak dira osagarri eta beharrezko. Bildarratzen erantzunera bueltatzen bagara, nolabait doluaren pedagogia baino ez du bultzatzen, heriotza gertatzen denean adabakia jartzea, berau sendotzeko eta errazteko funtsezkoa den aurreko lanketa, heriotzaren pedagogia, aintzat hartu gabe.

Dolu prozesu horretan, umearen emozioei nola erreparatu? Negar egiten ez duen, "nahikoa triste" ez dagoen umeagatik kezkatuko da zenbait guraso.

Gaia aurretik jorratu ez badugu, agian haur horrek ez daki triste egoteaz gain haserre egotea ere izan daitekeela heriotzari lotutako sentimendua... Kontuak kontu, dolu patologiko oso gutxi dago haurrengan, eta eman ohi da erreferentziazko helduengan euskarririk ez duelako aurkitu. Oro har, bidea egingo dute umeek eta horrek lasaitu beharko gintuzke; beti ere, inguruko helduen akonpainamendu on bat da inportanteena. Zerk piztu beharko liguke alarma?

> "Seme-alabak galdetuko balit, baietz esango nioke, noizbait hilko naizela, baina espero dudala ahalik eta beranduen izatea eta momentua aprobetxatzea dela egin dezakegun onena"

Behin hasierako shock egoera pasata egunerokoa jarraitzea oztopatzen dionean doluak umeari edo helduari, baita muturreko aldaketak eragin baditu haurrarengan ere. Helburua da haur horrek dolua bideratzeko euskarriren bat aurkitzea inguruan, dela etxeko helduen artean edo eskolakoen artean, gazteak inongo espaziotan ezer ez kanporatzeko aukerarik ez izateak kezkatu beharko gintuzkeelako. ●

BURUNTZALDEKO AUTOBUS ZERBITZUA

Merkatua da, lagun

Buruntzaldeko autobus zerbitzuaren kudeaketan aldaketa egon zen joan den urteko uztailean. Hiru eremutan banatuta zegoena bakarrean bateratu, autobus berriak errepidera atera, eta ordutegiak aldatu zituzten. Prozesua, ordea, ez da nahi bezain lasaia izan. Zerbitzu berriak martxan jartzean asko eta asko izan ziren kexak, egindako aldaketak herritarren beharretara egokitzen ez zirela-eta.

PERU IPARRAGIRRE DANI BLANCO

Goiz da, normalean baino goizago, agian. Behingoagatik eguna ondo aprobetxatu eta Lasarteranzko autobusa zortziak laurden gutxiagoan hartzea erabaki dut, eta erabakitakoa betetzeko garaiz jaikitzea lortu, izarek beti nahi baino gehiago pisatzen baitute. Donostiako Urbieta kaleko geltokian zain nago, dagoeneko ondoko okindegian eskatutako kafea bukatzen. Baina minutuak pasa eta autobusik ez da inondik ageri, Lasarteraino eramango nauenik ez, behintzat.

Zortziak jotzeko gutxi falta dela Askatasunaren Hiribideko geltokirantz abiatu naiz, korrika txikian, puntuan abiatu beharko lukeen autobusa hartzeko asmoz. Bertara heldu naizenerako jende apur bat dago bertan, zain. Zain egon gara, beraz, eta halako batean agertu da autobus bat, Lasarte aldera doana. Nire aurretik ilaran dagoen emakume batek gidariari galdetu dio ea Amaratik pasatzen den autobusa –Urbieta kalean jaso behar ninduen hura– etortzekoa den, ez dela pasa. Galderak lasaitu nau, ez baitut nik galdu autobusa, berak ni baizik. Gidariak ez daki ezer ordea, eta bera ere berandu etorri denez eta are beranduago

abiatzea komeni ez zaionez, igotzen hasi gara. Horretan ari garela agertu da bestea. Zortziak pasatxoan beharrean, beraz, zortziak eta erdi pasatxoan heldu naiz Lasartera, beste askotan baino goizago, hala ere, dena esan behar bada.

Tolosa eta Buruntzaldea Donostiarekin lotzen dituzten autobus zerbitzu guztiak berritu zituzten 2021eko uztailaren 1ean. Ordutik, ordutegi berrietara ezin ohitu gabiltza erabiltzaileak eta gidariak. Maiztasunak aldatu dira eta atzerapenak ere ez dira hain ezohikoak. Horrek guztiak eragiten du autobusa hartu behar dudan bakoitzean ematen didan nagia ohikoan dudana baino are handiagoa izatea, eta egunero hartu behar autobusa.

Ordura arte, hiru kontzesiotan banatuta zeuden Donostia eta Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Hernani, Astigarraga, Tolosa, Irura, Villabona eta Usurbil lotzen dituzten autobus lineak. 2014an abiatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurraldebusen kontzesio sarea berrantolatzeko plana. 2015ean amaitu zuten, baina kanpo geratu ziren Tolosarako eta Buruntzaldeko lineak. Izan ere, linea horiek kudeatzen zituzten enpresek helegitea jarri zioten lehiaketa publikoari. Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa hiru enpresa horiek zerbitzatutako lineak eremu bakarrean batzea zen, BU kodearekin guztiak bateratzeko.

Azkenean, epaitegiek lehiaketaren prozesua egokia izan zela ebatzi zuten eta kontzesioak aurrera egin zuen, atzerapen handiz egin ere. Azkenean, Alsa taldeak eta Bizkaiko Tansitia enpresak egindako proposamenak irabazi zuen lehiaketa, eta 2020ko udazkenean esleitu zioten kontratua. Hamar urterako kontzesioa da, hamar urte gehiago luzatzeko aukerarekin, orotara urtean ia hamar milioi euroko balioa duena. Ordura arte eremu horietan jarduten zuten hiru enpresek ematen zieten izena Donostia Tolosa eta Buruntzaldearekin lotzen zituzten autobusei: Garayar enpresak kudeatzen zituen lineek G hizkia zeramaten, TSST enpresaren lineek T hizkia eta Areizaga enpresarenek, berriz, A. Kontzesio berria indarrean sartu denetik, baina, guztiek daramate BU izena. Guztira hemezortzi linea dira, hamalau egunekoak eta lau gauekoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa, baina, ez zuten enpresek soilik zalantzan jarri, udalerriek eta langileek ere kritikatu zuten kontzesioaren aurreproiektua. 130 langile inguru dituzten autobus lineetan aurreikusten ziren murrizketak salatu zituzten 2017an. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurreproiektuan langileen lan baldintzen hobetzerik ere ez zen kontuan hartzen, eta horien inguruko zehaztapenik eta legerik ez zen aipatzen.

Beranduago, 2019an, kontzesioa airean zegoela, langileek Areizaga, Garayar eta TSST enpresekin hitzarmena ezin negozia zezaketela salatu zuten, Foru Aldundiak horretarako baimenik ematen ez zuela-eta. 2017an Gipuzkoako Foru Aldundiak kontzesioaren aurreproiektua aurkeztu zuenetik langileen lan baldintzak izoztuta zeudela salatu zuten UGT eta LAB sindikatuek, eta hori kontratua esleitu arte hala ez izatea Aldundiaren gain zegoela gogorarazi zuten. Are gehiago luzatu zen kontua, ordea. Kontzesio berriarekin ere orain arteko langile guztiak mantendu dituzte, eta flotako autobusak ere, berritu beharrekoak salbu. Denbora-tarte honetan, baina, linea horietako autobusak are gehiago zahartu dira, eta berritzeko garaia heldu zaie.

Buruntzaldeko autobusak berritzeko, horietako batzuk Lurraldebusen autobusetatik geratzen ziren zaharrenak, hogeita hamar autobus hibrido berri erosi zituen Foru Aldundiak. Rafaela Romero Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatuak Lurraldebusen flotarik "moderno eta berdeena" bilakatuko zela adierazi zuen.

KAOSA AUTOBUS GELTOKIAN

Donostian bizi denarentzat nahiko erosoa da inguruko herrietara mugitzea, eta alderantziz. Gipuzkoako hiriburuaren eta inguruko eskualdeen artean mugitzeko aitzakiarik ez da falta, izan lanerako, eskolara joateko, familia eta lagunekin elkartzeko, aisialdirako... Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, egun BU izena daramaten autobusen ibilbideetan 6,5 milioi bidaia egin ziren 2017an. Lotura nagusia Hernani eta Donostia artekoa izan zen urte horretan, 2.204 bidaiari izan zituen egun eta noranzko bakoitzeko. Horren ondoren Lasarte-Oria eta Donostia arteko lotura izan zen jendetsuena, egun eta noranzko bakoitzeko 1.485 bidaiarirekin.

2021eko uztailaren 1ean, beraz, itxuraz eta izenez aldatu zuten autobusek, baina baita maiztasunez ere. Teorian, astean 162 bidaiatik 173 bidaiara igaro ziren Buruntzaldeko autobus lineak, baina ordutegi berria indarrean sartu zenean gehiegi nabaritu zen aldaketa, eta ez onerako. Zaila da egunerokotasunean erabili behar dituenarentzat halako aldaketetara egokitzea, ordutegi eta izen berrietara, esaterako, are gehiago egokiak ez direnean.

Linea berriak martxan jarri bezain laster urgentziazko bilera egin behar izan zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak autobusen ibilbideetako udalekin eta enpresarekin. "Kaosa" sortu zuten aldaketek, LABek salatu zuenez. Sindikatuko Ekaitz Telleria Gipuzkoako garraio arduradunak joan den urteko uztailean egindako adierazpenetan azaldu zuen kontzesioaren prozesua epaitegietan katramilatu zenez aldundiak linea berriak indarrean jarri aurretik egin beharreko lanak egin gabe zeuzkala.

Batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak auzia udalekin kontrastatu ez zuela salatu zuen Telleriak, eta, bestetik, enpresak berak ere ez zekiela zein zen eman beharreko zerbitzua. Hain zuzen ere, autobus gidariei ordutegiak martxan jarri bezperan eman zizkieten, ekainaren 30ean. Bezperan bertan, gainera, langile askok ez zekiten zeintzuk izango ziren aldaketak, eta biharamunekoa kaosa izango zela helarazi zieten erabiltzaileei.

TSST enpresaren autobus bat, 2007an.

CARLOS

Zaila da ordutegi aldaketetara egokitzea, are gehiago egokiak ez direnean

Asko eta asko izan ziren egun horietan kexatu ziren erabiltzaileak. *Gipuzkoako Hitza*k jaso zuenez, Astigarragan izan ziren gorabehera gehien, herri erdiko geltokia kendu eta maiztasuna aldatu baitzuten. Donostiatik Hernanira Aietetik igaroz joaten den autobusaren maiztasunaren murrizketak ere kexak sortu zituen.

Kaosa izan zen joan den urteko uztaileko lehen egunekoa, baita hurrengo egun eta asteetakoa ere, eta laster urtebete beteko denean badirudi ohitu garela autobus berrietara. Hain zuzen ere, kexen ondotik zerbitzuetan egindako zuzenketa batzuek ere baretu dute haserrea eta ezinegona.

Gertatutakoa Gipuzkoako Foru Aldundiak garraio publikoari ematen dion garrantziaren erakusletzat jo dute hainbat herritarrek. Beste hainbatek merkatuaren jokoa ikusten dute horren guztiaren atzean, horrelako kontratuetan zerbitzuaren egokitasunak eta eraginkortasunak baino irizpide ekonomikoek duten pisua azaleratuz. Asko izan dira sare sozialetan eta gaiari buruzko albisteen iruzkinetan Rodrigo Rato politikari espainiarraren "Merkatua da, lagun" esaldia baliatu dutenak egoera laburtzeko.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren araudiaren menpe daude tren eta errepideko bidaiarien garraiorako zerbitzu publikoak. 2007ko urriaren 23koa da araua, haren arabera, azken buruko helburua merkatuko "joko soilak" eskaini lezakeena baino maiztasun handiagokoak, seguruagoak, kalitate handiagokoak eta merkeagoak izango diren interes orokorreko zerbitzuak eskaintzea da.

Arazoa da, ordea, horretarako baliabideak gero eta mugatuagoak direla. Azken urteetan areagotu de krisi ekonomikoak gero eta gehiago estutzen ditu zerbitzu publikoak, jendearen bizimodua estutzen duen bezala, eta ustez merkatuaren "joko soilaren" logika gainditu beharko luketen baliabideak haren aurkako gerra galdua borrokatzera behartuta daude. Garraio publikoa ezinbesteko baliabidea da Donostian eta Lasarte-Orian, eta ezinbestekoa da egun ez dagoen lekuetan ere. Baina zeren arabera hartzen dira erabakiok? Erabilgarritasuna eta beharraren araberakoa izan beharko lukeena, jasangarritasun eta errentagarritasun ekonomikoaren arabera antolatzen da. ●

Kaukasoar iritsi berriak

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Gottingen (Alemania), 1775. Johann Friedrich Blumenbach antropologo gazteak lehenengoz erabili zuen "kaukasoar" hitza azal zuriko gizakiak deskribatzeko. *De generis humani varietate nativa* lanean, hainbat jatorritako garezurrak aztertu ondoren, alemaniarrak bost giza arraza bereizi zituen: etiopiarrak edo beltzak; mongoloideak edo horiak; malaysiarrak edo marroiak; amerikarrak edo gorriak; eta kaukasoarrak edo zuriak.

Blumembachek uste zuen arraza indoeuroparrak Kaukaso inguruan zuela jatorria. Horregatik aukeratu zuen Georgia inguruko garezur bat prototipo gisa, eta horregatik erabaki zuen "kaukasoar" hitza erabiltzea arraza hori deskribatzeko.

Johann Blumenbachen alde esan behar da garbi adierazi zuela bere ustez arrazen artean ez zegoela hierarkiarik, bata ez zela bestea baino hobea. Hau da, berea ondorio zientifiko hutsa zela, osagai sozial edo etikorik ez zeukana. Baina, batetik, berea bezalako ikerlanak arrazakeria justifikatzeko erabili izan dira luzaroan, egileak bestelako asmoak izan arren. Eta, bestetik, bere lanaren oinarria zientifikoki okerra zen, egun bai baitakigu giza arrazarik ez dagoela.

Gainera, azken urteotako ikerlanek agerian utzi dute azal zuria uste baino ezaugarri askoz berriagoa dela. 2014an Leongo (Espainiako Estatua) La Braña aztarnategiko Mesolitoko giza arrasto batzuen genoma sekuentziatzea lortu zuten, eta duela 7.000 urteko gizaki hura azal ilunekoa zela ondorioztatu. Horrek esan nahi du egokitze genetikoa Neolitoan gertatu zela, nekazaritzak dietan, metabolismoan eta immunitatean eragindako aldaketek ahalbidetu zutela egokitze genetiko hura. Hortaz, duela 14.000-13.000 urte Ekaingo hormak margotu zituzten gizakiak, esaterako, ez ziren zuriak edo kaukasoarrak.

Eta, hala ere, Blumenbachek aukeratutako hitza asko erabiltzen da. AEBetan azal zuriko gizabanakoak deskribatzeko termino ofiziala da, kaukasoar eta afroamerikar esatea zuzenagoa baita, nonbait, zuria edo beltza esatea baino. Eta handik etorritako albiste, film edo telesailetan etengabe errepikatzen da.

Hala, "kaukasoar" hitza "zuria" esateko modu politikoki zuzena bihurtu da, jatorrian arrazista eta, gainera, zientifikoki okerra den arren. ●

WELLCOME COLLECTION

1775ean, Johann F. Blumenbach (1752-1840) antropologoak bost giza arraza bereizi zituen garezurraren arabera, eta "kaukasoar" hitza erabili zuen horietako bat deskribatzeko.

GRANADAKO UNIBERTSITATEA

Hezur berriak historiaurreko hilobian

Granadako (Espainiako Estatua, Andaluzia) Panoria nekropolian duela 5.600-4.000 urteko 19 hilobi aurkitu dituzte orain arte. Baina 2019an aurkikuntza bitxia egin zuten 15. hilobian: K.o. V. mendean bizi izan zen emakume gazte baten garezurra, humeroa eta tibia. *Journal of Archeologicak Science* aldizkarian argitaratu berri den ikerlanak ez du argitzen 2.500 urte berriagoak diren hezurrak zergatik utzi zituzten historiaurreko nekropolian. Baina Margarita Sánchez Romero arkeologoak argitu du erromatar garaiaren amaieran bizi izan zen emakumea ez zutela hil eta berehala ehortzi –gorpua eskeletizatua baitzegoen han ehortzi zutenean–, eta "Panoriak toki sakratu gisa zeukan garrantzia" adierazten dutela hezur horiek, memoria kolektiboan luzaroan iraun zuelako. ●

HITZALDIAK

ESTITXU EIZAGIRRE / ARGIA

Koldo Rabadanen hitzaldia, hezkuntzaz, Larraulen.

Gaia edozein dela ere, solas egin dezagun

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Badira urte batzuk ARGIAko kazetariak ikerketa eta lan sakonagoak egin eta horiekin liburuak argitaratzen hasi ziren. *Zuloan* izan zen lehenengoa, eta gero etorri dira *Berdea da more berria, Pape Niang. Hasiera berri bat* eta *Ez gara neutralak* lanak. Argitaratzen azkenak izan dira *Bidean*, *Txori Urdinak* eta *Sendabelarrek dakitena*. Baina ba al zenekien, irakurle, liburuok saltzeaz aparte, egileak herriz herri solasaldiak egiten ari direla.

Landareen inguruko bi izarrek bere martxa daramate. Garbiñe Larrea sendabelarrekin alde batetik eta Jakoba Errekondo etxeko zein baratzeko landareekin beste aldetik, jo eta su ari dira Euskal Herri osoan barna. Bizi Baratzea webguneko agendan daude ikusgai beraien hurrengo hitzorduak.

Guztiz bestelakoa den gai batekin heldu da Zigor Olabarriaren *Txori Urdinak* liburua, baina hau ere hasia da batean eta bestean Santi Cobos presoaren ahotik jasotako espetxearen erretratua aurkezten.

Beste ikus-entzule estilo batekin, Koldo Rabadan ere ari da batez ere hezkuntza eragileei zuzendutako hitzaldiak, mahai-inguruak eta aurkezpenak egiten, *Bidean* liburua eskuetan.

Libururik argitaratu gabe dagoeneko hitzaldiak eskaintzen hasia denik ere bada taldean. Ezin desaprobetxatu Elkanoren mundu bira sonatuaren 500. urteurrena, haren tripa ustelak ateratzeko. Elkanoren munduari bira emateko. Axier Lopez ari da lan horretan.

'ARGIAREN SOLASALDIAK' ATALA WEBGUNEAN

Astero ekarri ohi dugu orrialde honetara hitzaldi horien agenda. Baina orain, ARGIAren webgunean ere toki bat egin diote *Argiaren solasaldiak* atal berriari; interesatuek modu erraz batean jakin dezaten nondik nora dabiltzan eta noiz diren hurrengo saioak.

Herrietako elkarteekin antolatzen dituzte normalean solasaldi hauek. Modu bikaina da hainbat gairen inguruko edukiak jendearengana iritsi, eztabaida eraikitzailea sustatu eta ekarpenak edo iritziak jasotzeko. Gainera, ARGIAren komunitatea ezagutu eta indartzeko beste manera bat ere bada.

Zuen herrian, zuen elkartean horrelako zerbait antolatzeko asmoa duzuela? Idatzi solasaldiak@argia.eus helbidera eta jarri harremanetan arduradunarekin. ●

Ongi etorri komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!

"Euskarazko komunikabide independente bakarra delako. Kritikotasuna sustatzeaz gain, ikuspuntu desberdinak ere kontuan hartzen dituelako"
Azkaineko Mikel

"Euskarazko komunikabidea delako eta berriak helarazteko modua asko gustatzen zaidalako: argi eta mamitsu"
Berangoko Lander

"Oso produktu ona delako eta ezinbestekoa iruditzen zaidalako euskaldunontzako"
Bermeoko Maria Jesus

AGENDA

Ez gara kolonialistak, baina...

Axier Lopez kazetariaren hitzaldia, Elkanoren Mundu Biraren V. mendeurrenaren oinarri:

Maiatzaren 4an 19:00etan
Arrasate Kulturate

Maiatzaren 11n 19:00etan
Trapagaran

JAN ETA BIZI

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Landareak lantzen dituenak badaki: jan gabe ez dago mozkinik. Landare guztiak sustraien erara dituen jakien arabera biziko dira. Bizi horri kenduko diogu guk nahi dugun mozkina: hazia (babarruna, *Phaseolus vulgaris*), fruitua (sagarra, *Malus domestica*), lorea (orburua, *Cynara cardunculus var. scolymus*), hostoa (ziazerba, *Spinacia oleracea*), azala (kanela, *Cinnamomum verum*), zura (hagina, *Taxus baccata*), egurra (amerikar haritza edo haritz gorria edo norteko haritza, *Quercus rubra*), sustraia (azenarioa, *Daucus carota subsp. sativus*), kimua (zainzuria, *Asparagus officinalis*), erreboila (idi-bihotza edo tulipa, *Tulipa spp.*), tuberkulua (patata, *Solanum tuberosum*) eta abar.

Mozkina behar dugu, jakina, horretarakoxe lantzen ditugu landareak. Nolako mozkina da galdera. Zer nahi dugu, asko eta handiak? Edo onak? Kantitatea edota kalitatea, ekoizleak maiz-maiz topatuko duen kereta. Azkar eta asko biltzearen alde jotzen duenak badaki: ongarri kimikoak, pestizidak, esklabotzara daramaten teknologiak eta abar izango ditu adiskide. Azkar eta asko saltzearen alde jotzen duenak badaki inguruko airea, ura eta jendea erreko dituela. Jendea: arerioak, lagunak eta baita alaba-semeak ere.

Duela mende bateko pentsamoldeari eusten bazaio, are eta nekazari gutxiago izango dugu inguruan. Etengabeko odolustea ez da geratuko. Zein nekazari galtzen ari gara? Zientzialari harroxkoek eta politiko-administratzaile industriazaleek sustatzen duten nekazaritza kapitalistaren uztarriari lotzen direnak. Ingurune guztia erretzen dutenak, gu eta gure etorkizuna erretzen dutenak. Bai, etorkizuna, lurra ere erretzen baitute, lasai demonio. Nekazaritza industriala, kapitalismo berdea bezalakoxeko oximorona da, berezko gezurra, alegia.

Nahitaezkoa beharko luke hiri hondakinetan organikoa bereizi, luartu eta lurrari bueltatzea; hil ala bizikoa.

Lurra da gure ondasun handiena. Lurra zaintzeak izan behar du gure helburu nagusia. Lurretik jaten dugu. Lurretik jaten du guk jaten dugun guztiak. Lur errea, janari errea, gu erreta, ospitaleak gainezka. Zaindu dezagun bada lurra. Lurraren bizitza elikatzea da gure aukera bakarra; lur bizian landareak errazago eta hobeto elikatuko dira. Lurrari bizitza ematea ongarri organikoak ematea da. Ez dago bestelako trikimailurik. Ongarri organikoak sor ditzagun, batez ere eskuera ditugun hondakinetatik. Horrela dio Murtziako Unibertsitateko ikerlari ospetsu batek, German Tortosa Muñozek. Urte asko daramatza luarraren erabileraren onurak frogatzen eta zabaltzen. Argi eta garbi dio: luarra duen lurrean landareak ederrago hazten dira. Luarretik luarrera ere badago koska, baina ezer baino hobea da luarrik kaskarrena ere. Nahitaezkoa beharko luke hiri hondakinetan organikoa bereizi, luartu eta lurrari bueltatzea; hil ala bizikoa.

Izan ere dakienak badaki: janik gabe bizitzarik ez. ●

KUKUBASO ELKARTEA

HERRI LURRAK ETA BERTAKO BASOA BERRESKURATZEKO PROIEKTUA BERGARAN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Pandemia dela eta ez dela, gero eta jende gehiago ari da hurbileko mendietara jotzeko ohitura hartzen, eta dirudienez, gure basoen egoeraren inguruan hausnartzeko aukera ere ematen ari da. "Pinuaren gaitzak zuhaitzok hondatu edo egoera oso kaxkarrean utzi ditu, eta horietako asko kendu egin dira, hemen ohikoa den arrasa mozketaren bidez", azaldu du Ainhoa Agirrebeña Zabala Bergarako Kukubaso elkarteko kideak. Hain zuzen, inguruko basoen egoeraz kezkaturik zegoen herritar talde batek elkartzea erabaki zuen 2021ean, bestelako baso kudeaketaren alde egiteko eta herri lurrak berreskuratzeko asmoz.

LUR PUBLIKOA %2 SOILIK

Harreman estua du lurraren jabetzak basoaren kudeaketa ereduarekin, eta Bergararen kasuan ere argia da lotura hori. "Partzela txiki asko ditugu gurean, baina guztira, lur publikoak herriko lurren %2 baino gutxiago dira", dio Agirrebeñak. Horregatik, bertako basoaren alde egiteko, beharrezko jotzen dute herri lurrak berreskuratzea. Baina, zertaz ari gara bertako basoa berreskuratzeaz ari garenean? Gauza bat argitu du Kukubasoko kideak: "Askotan, landaketekin lotzen dugu automatikoki, baina ez du zertan horrela izan, batzuetan naturari bere lana egiten uztetik hasten baita prozesua".

Urtebeteko ibilbidean, lagapenen bidez hainbat lursailen kudeaketa bere gain hartu du Kukubaso elkarteak, tartean, Agirretxeberri baserriko kideek utzitako 2,1 hektarea. Zenbait sailetan landaketak egin dituzte, auzolanean: astigarra eta haritza jarri dituzte batez ere, baina baita gorostiak, lizarrak, urkiak eta hagin bat ere. "Aurrera begira, lursail horretan artea sartu nahi dugu, duela urte asko artadia baitzegoen hor", gehitu du kideak. Bergarako Udalarekin elkarlanean ari da taldea hastapenetik, eta azken asteotan herri lurrak erosteko deialdia egin berri du udalak.

PEDAGOGIAREN GARRANTZIA

"Pedagogiaren alorrari garrantzi handia ematen diogu elkartetik, bai umeei eta baita helduei begira", azaldu du Agirrebeñak. Aurkezpenen, hitzaldien eta antzekoen bidez lantzen dute alor hori, baina alderdi praktikotik ere bai. "Gure lehen landaketa egin genuen ingurua oso laua da eta herritik oinez joateko moduan dagoenez, umeekin joateko deialdia egin genuen. Sekulako arrakasta izan zuen". Lanketa interesgarria, kontuan izanda haiei egokituko zaiela gaur egun berreskuratzeko bidean diren baso horiek etorkizunean zaintzea eta mantentzea.

Pixkanaka eta pauso txikiak emanez, beste pentsatzeko eta ekiteko modu bat hedatzen ari da Kukubaso elkartea Bergaran, Euskal Herriko beste hainbat tokitan sortu diren antzeko proiektuekin batera. "Lurjabeengana hurbiltzea zailagoa izaten da, bizi oso bat baitaramagu kudeaketa eta lan egiteko modu jakin batekin, baina sumatzen dugu, orokorrean, jendearen aldetik harrera oso ona izaten ari garela eta kezka badagoela", amaitu du. ●

Leslie Feinbergen tesia da zapalduek elkarri lagundu behar diotela

Fermintxo Zabaltza

Itzultzailea

Langile klasekoa, transgeneroa, lesbiana, "mari-mutila", judua, pobrea... zapalketa andanaren gurutzagunea zen Leslie Feinberg aktibista estatubatuarra. Zapaldu gisa kokaturik, harrotasunez eta askatasun egarriz borrokatu zuen zapalkuntza oro bere bizitza osoan. Euskaraturik dugun bere bigarren liburua da *Borrokalari transgeneroak. Historia eginez, Joana Arc-ekotik Dennis Rodman-enganaino* (Katakrak, 2021). Historian zehar eta munduan barrena sexuak eta generoak ukandako lekuaz ari da, tartean, barrenean dauzkan galdera, bizipen eta hausnarketak txertatuz.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN DANI BLANCO

Euskarara ekartzen diguzun Leslie Feinbergen bigarren liburua dugu *Borrokalari transgeneroak. Historia eginez, Joana Arc-ekotik Dennis Rodman-enganaino*. Hor dugu ere *Mari-mutil handi baten bluesa*. Zein da idazle honekin duzun lotura?

1999an Londresera joan nintzen, hango trans giroa ezagutzera. Gay´s the word LGTB liburu dendara joan eta galdetu nien transei buruzko zein liburu zituzten; oso gutxi zeuden garaian, eta besteak beste, Leslierenak gomendatu zizkidaten. Lehenbiziko *Transgender Warriors* irakurri nuen eta ondotik *Stone Butch Blues*. Biak izugarri gustatu zitzaizkidan, zirrara eragin zidaten, eta orduan nahi ukan nituen euskarara ekarri. Berez, Leslierekin behin bakarrik ukan dut harreman zuzena, email bidez. Orain lotsa pixka bat ematen dit, baina nahiko inozenteki erran nion bere liburuak asko gustatzen zitzaizkidala eta euskarara itzuli behar nituela. Erantzun zidan ohore bat zitzaiola euskarara itzulia izatea, euskaldunen autodeterminazio eskubidearen alde zegoela eta hitzaurre berezi bat eginen zigula. Baina 2014an hil zen eta nik liburu hauek geroago bukatu nituen.

Mari-mutil handi baten bluesa nobela bat da, baina ikusten da autobiografikoa dela neurri handi batean. New York estatuko lesbiana mari-mutil baten bizia kontatzen digu: bizituriko pobrezia, LGTB giroko tabernak deskubritzea, ibilbide pertsonala, jasandako zapalkuntzak, eramandako borrokak, eta beste. *Borrokalari transgeneroak* saiakeran, bere biziaz hitz egiten du eta denek sumatzen genuena berresten da: neurri batean autobiografikoa dela *Mari-mutil handi baten bluesa*. Bere bizi osoko lanaren emaitza ere da. Transak, mari-mutilak, transexualak izan ditu ikergai, pairaturiko zapalketak ikertzen aritu da eta ikusi du generoa ez dela garai eta kultura guztietan gaur egun eta hemen ulertzen dugun bezala ulertua izan. Beti izan dira gure genero eskemak hausten dituzten pertsonak, baina, haustura hori gaur egun eta hemen dago, beste kultura edo garai batzuetan ez zen haustailea eta onartuak izan ziren.

Feinberg aurkezterako orduan zer azpimarratuko zenuke?
AEBn jaio zen 1949an. Bere burua definitzen zuen mari-mutil, emakume, lesbiana, transgenero, komunista eta judu sekular gisa. Gehien gustatzen zaidana da transen gaia beste borroka askorekin lotzen zuela, ez zuela isolatzen. Pertsona militantea zen, borrokalaria eta bere liburuak ez dira analisi hotzak, ez dira akademiko batenak, berak zioen justujustu bukatu zuela institutua. Erabilitako terminologiari buruz esaten zuen: "Nire helburua ez da gure taldea definitzea, baizik eta defenditzea". Borrokatzen zen, batetik, zapalkuntza askok zuzenean berari eragiten ziotelako eta bestetik, elkartasun handikoa zelako. Adibidez, bere liburu batzuk hebreerara itzuli eta irabaziak palestinarren alde banatzen zituen.

Historia idazten du, trans pertsonena eta trans pertsonatik, ezkutaturiko historia bat bistaraziz.
Hori da. Liburua irakurri aurretik banekien, adibidez, Ameriketako indioen artean izan zutela gai horiek ulertzeko beste modu bat, baina liburua irakurri-

> *"Feinberg borrokatzen zen, zapalkuntza askok zuzenean eragiten ziotelako baita elkartasun handikoa zelako ere*

ta ikusi nuen dimentsio handia zeukala horrek eta gainera ez zela oso urrutikoa: Europan eta orain duela mende gutxi, guretzat urratzaileak diren gertakizunak izan ziren. Pirinioetan XIX. mendean Andereñoen Gerla izan zen, herri lurren alde, eta gizonak emakumeen jantziekin janzten ziren borrokarako. Horrelako gauzak izan ziren Irlandan, Galesen eta Europako beste leku askotan.

Baita Zuberoan ere.
Bai, hori ez da jatorrizko liburuan agertzen, baina oin-ohar batean erantsi dugu *Erbesteko gutunak Victor Hugori* (Katakrak, 2020) liburuan agertzen den aipamen bat, Zuberoan ere herri lurren aldeko borroka eraman zela dioena, zeinetan gizonezkoak emakumeen arropaz jantzirik borrokatu ziren.

Datu historikoz josia da liburua, baina bere bizia ere kontatzen du.
Ikerketa honen oinarrian bere bizipenak daude, lan honen abiapuntua horixe izan zuen: bere kezkak, bere bizia.

Betidanik egon gara baina ez gara beti zapalduak izan. Hori da Feinbergen ondorio nagusietako bat.
Liburuan agertzen da neurri handi batean kolonialista europarrek zutela transen kontrako zapalkuntza Ameriketara eta Afrikara eraman. Ameriketako natiboen artean askoz irekiagoa zen ikuspegia. Guk ulertzen dugu bi genero daudela, zurrunak, eta ezin dela batetik bestera pasatu, baina Ameriketako natiboen artean hori askoz ere malguagoa zen, genero asko zituztela esaten da. Askotan xamanak ziren guk trans izendatzen ditugunak, hau da, prestigiozko leku bat zuten. Baina Feinbergek

zehazten du bera zuria dela, Mendebaldekoa eta ez dela gauza beste kultura batzuetan transei buruz zer ulertzen duten zehazki jakiteko. Berak esaten du seguraski garai zaharretako jendarteak berdinzaleagoak zirela, trans izaera gehiago onartzen zela, eta aberastasunak eta ondareak pilatzen hastearekin batera abiatu zela jendartearen zatiketa. Bere botereari eusteko bidean, gutxiengo aberats bati komeni zitzaion jendartea zatiturik izatea, eta orduan hasi ziren emakumeen kontrako gorrotoa, transen kontrakoa, gay eta lesbianen kontrakoa... Gutxiengo aberats horri komeni zitzaion zapalduak elkarren artean borrokan ibiltzea, boteretsuen kontra elkartzeko ordez. Lehenbiziko idatzi transfobikoak Deuteronomioan omen daude, praktika batzuk gaitzesten ditu –"Emakumeak ez du gizonezkoen jantzirik erabiliko, ezta gizonak ere emakumezkoen soinekorik jantziko, higuingarri baitzaio Jainkoari horrelakorik egiten duena" eta "barrabilak zanpaturik dituenak nahiz irenduak ez du esku-hartuko Jaunaren batzarrean"–. Ordura arte praktika horiek bazirela erran nahi du horrek.

Antikapitalista, langile klasekoa eta komunista ere zen Feinberg.
Maila ekonomiko apaleko familia juduan jaio zen, eta bizi guztia eman zuen lanbide prekarioetan, besteak beste bere trans izaeraren ondorioz. Langileen Munduko Alderdiko kide zen. Alderdi hori iraultzaile marxista-leninista da, eta bertan jaso zuen bere prestakuntza ideologikoa. Alderdiaren barnean babes handia jaso zuen bere trans izaerari dagokionez.

Emakumeen askapen mugimenduak asko ekarri ziola kontatzen du ere.
Feminismoak begiak ireki zizkion. Bere ikerketan, emakumeen zapalkuntzaren erroak aztertzen hasi zen. Besteak beste, irakurri zuen Dorothy Ballanen panfleto bat –Dorothy Ballan zen Langileen Munduko Alderdia sortu zuen emakumeetako bat–: *Feminism and Marxism* ["Feminismoa eta marxismoa"]. Emakumeen mugimenduan sexu zapalkuntzaren jatorri materiala ikertu zuten sozialista feministek idatzitako guztia irakurri zuen. Horrela ikasi zuen antzinako jendarte komunalistak oso bestelakoak zirela, eta bertan oso toki desberdina –eta askoz ere hobea– zutela emakumeek eta guk trans deituko genituenek.

"Denek dugu eskubidea geure gorputzen gainean erabakitzeko eta geure buruak definitzeko", Feinbergen hitzetan.
... inolako zapalkuntzarik jaso gabe. Gerta daiteke hori entzun eta pentsatzea "horrek ez du horrelako garrantzirik". Baina bera behin eta berriz zanpatu zuten hain zuzen ere, zen bezalakoa izateagatik, adibidez, galtzak janzteagatik. Berak eta bera bezalako beste askok oso garesti ordaindu zuten –eta oraindik ere ordaintzen dute–.

Gaurkotasun handia du bere gogoetak, alta, 1996an idatzitakoa da.
Atera dudan ondorioa da, seguraski, AEBetan trans mugimenduak 20-30 urteko aurrerapena daramala gurearekiko. Liburuan agerturiko mesfidantza, gatazka eta galderak 20-30 urte berantago iritsi zaizkigu eta aipagai batzuk gaurkotasun handia dute guretzako.

> *"Aberastasunak eta ondareak pilatzen hastearekin batera abiatu zen jendartearen zatiketa*

Horregatik ere da beharrezkoa itzulpengintza.
Bai, bueno, ez dut asko pentsatu. Euskaltzalea naiz, eta trans gaiak asko inportanta zaizkit, beraz, niretako naturala izan zen euskaratzea. Galdetu didate "zergatik ez erdarara?" eta "euskalduna naizelako" da erantzuna.

Euskaraz zenbatetaraino bada transgeneroari eta askapen borroka horri buruzko gogoeta?
Nahi baino gutxiago. Dena dela batzuetan ni farsante samarra sentitzen naiz. Izan ere bi liburu itzuli ditut, elkarrizketak eskaini dizkidate eta literaturan asko dakien jendearekin elkartzen naiz, baina, nik oso gutxi irakurtzen dut. Beharbada nik uste baino askoz gehiago dago euskaraz gai horri buruz. Liburu batzuk ekarri ditut, zuzenean edo zeharka LGTB arloa lantzen dutenak eta asko gustatu zaizkidanak [elkarrizketatzeko unean esku artean dauzka Dom Campistronen *Bekatorosak*, Kattalin Minerren *Moio, gordetzea ezinezkoa zen*, Daniel Landarten *Batita haundia*].

Kapitulu bat dago mugimendu feminista eta transen askapenaren aldeko borrokaren arteko harremanaz. Hori ere gaur egungo eztabaiden artean daukagu.
Espainian oso indartsua da eztabaida eta gatazka hori. Gutxiago baina hemen ere badago. Bere burua emakume eta trans gisa definitzen zuen Lesliek, orduan, biak zeuzkan bere borrokatzat. Bere tesia da zapalduek elkarri lagundu behar diotela eta inor ez dela bazterrean utzi behar. Hasten bagara bazterrekoak baztertzen boteretsuek gu onartzeko, ez da inoiz aski izanen eta beti baztertu beharreko bat egongo da. Zapalduenen alde egin eta borroka guztiak bereak balira bezala sentitzen zituen Lesliek. Ez zen bakarrik transgeneroa, emakumea ere bazen, pobrea ere bazen, judua ere bazen...

Langile klasekoa da, komunista, baina, aldi berean, irakurketa intersekzionala du. Ekarpen interesgarria hori ere feministen arteko eztabaidei begiratzerakoan.
La tranpa de la diversidad liburua atera zen Espainia mailan eta omen liburuak dio klase borroka dela inportantea eta gaineratekoak despistatu egiten gaituela. Baina dibertsitatea hor dago. Lan prekarioetan aritzeaz gain, Feinberg zanpatzen zuten bere janzkeragatik, maitatzen zuena maitatzeagatik, judua izateagatik... Zen bezalakoa zen eta zanpaketa asko jasan zituen langile izateagatik, baita beste arrazoi batzuengatik ere. Langile klasean ere dibertsitatea badago.

Borrokatzearen garrantziaren oharpen bat da liburua. Borrokaren ohoratze bat.
Liburua erraietatik ateratakoa da, asko landurikoa eta borrokarako deia da. Arrazoi zuzenen alde eta zapalduen alde borrokatzea izan da bere bizitzako jarrera eta liburu hau ere izate horretatik idatzi du. *Mari-mutil handi baten bluesa*-n pentsa zitekeen oso fatalista zela, baina *Borrokalari transgeneroak*, berriz, liburu alaiagoa da, positiboa. Ez du esaten "badago zer egina", baina bai "egin dezagun". ●

LIBURUA

Indarkerien mapa dialektala



DANI BLANCO

DUVOISIN KAPITAINAREN MALURA

KEPA ALTONAGA

PAMIELA, 2018

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Kepa Altonagak 2018an argitaratu zuen *Duvoisin kapitainaren malura* Pamielarekin, idazlearen argitaletxe kutunarekin. Liburuak erarik gordinenean uzten ditu agerian gure dialektoen mapa ezagunenaren lilurak estaltzen dituen harreman historiko materialak. Hots, desegin egiten du Bonaparteren lanaren izaera fetitxizatua, mapak beharrezko izan zituen indarkeriak erakusteko.

Eta bai, badakit zer ari zaren pentsatzen. Zer demontretan ari naiz gure sorkuntzaren udaberriko labekada betean duela lau urteko liburuaz idazten. Zertan, Altonagak iaz *Iridioaren mintzoa* argitaratu bazuen, idazlearen azken aurreko lana iruzkintzen. Bada, *Duvoisin kapitainaren malura* etengabeko nobedadeen zurrunbilotik at pentsatzen jarraitzeko liburu bat dela iruditzen zait.

Mapak ezkutatu egiten du modernitate inperialaren indarkeria. Aurrerabideak hizkuntza batzuk galaraziko zituela zioen zientziak. Euskara zenez horietako bat bildu eta sailkatu egin behar zen. Euskara desagerrarazteko praktika glotofagoa eginbide zientifiko gisa jantzi zuen mapak.

Mapak ezkutatu egiten du modernitate kapitalistaren indarkeria. Euskara supradialektal literarioa sortzen ari ziren ekintzaileek saldu zioten Bonaparteri zuten lan-indar guztia eta gehiago. Horrenbestez, eraldatzaileak izango ziren proiektu propioen aurka egiten amaitu zuten.

Mapak ezkutatu egiten du modernitate patriarkalaren indarkeria. Gizona ez bezala, ordaindu gabea eta aitorgabea izan zen Klementzia Richarden lana. Lan ordaingabe hori barik dialektoen mapa ez zen inondik ere gaur dena izango.

Mapak ezkutatzen duen prozesuan liburuak era argigarrian erakusten du zenbateraino baldintzatu (asmatu) zituen Bonapartek euskalki ustez puruak. Euskara hori ez zen eguneroko bizitzan etengabe aldatzen ziharduen euskara nahasi bizia.

Borgesen *Zientziaren zorroztasunaz* narrazioan bezala, mapa lurralde bihurtu dugu indarkeria eta guzti. Fetitxeak berezkotu egin du euskalkien bereizkeria eta ezkutatu modernitatearen bortxak. Alta, eskutik doaz bata eta besteak: bata zalantzan jarri behar da besteei aurka egiteko. ●



MUSIKA

Metala bere pisu eta adiera adierazgarrienean

SAIA GOAIT

MIAZKATU

SAIA GOAIT

AUTOEKOIZPENA, 2022

IKER BARANDIARAN

Mutrikuko laukoteak aurre egin dio pandemiaren garai ilunari eta lana sendo eginez bueltan da, taldekide aldaketekin eta crowdfunding bidez (aupa zuek!) landutako bigarren disko luze eta biribil honekin.

2017an sortu zuten Saia Goait beste hainbat taldetan (Keike, Kraussk, Karenka...) ibilitako lagun batzuek, eta elkar ezagutu, probatu, disfrutatu eta esperimentatu ostean, 2019an izen bereko lan luzea kaleratu zuten. Disko hark erakutsi zuen haien kanten gakoetako bi direla abiadura eta amorrua, baina baita beti rock gogorraren eremuan bada ere estilo jakin bakarrera lerrokatu nahi ez izatea ere.

Gerora –zer erremedio– kontzertuak eten behar izan zituzten eta disko berriaren prestaketari ekin zioten etxean. Mutrikuko AEM estudioetan erditu dute lan hau, Axular Arizmendiren laguntzarekin. Soinuan aurrerako jauzi nabarmena egin du taldeak, emaitza landuagoa eta irmoagoa emanez; baita hitzetan ere: deserosoak, zorrotzak eta autokritikakoak dira, nolakoak bestela?

Abiadan jarraitzen du taldeak, baina kantak gordinagoak eta irmoagoak dira; izan ere, emaitza metaleroagoa da, pisutsuagoa. Harira doaz zuzenago. Beñatek ozenago eta askeago abesten du, erregistro desberdinetan eroso, eta taldea trinkotuta dago. Aldi berean, melodia ere oso presente dago; trumoiaren azpian gailentzen dira halako uneak ere, zaintzen dituztelako. *Miazkatu* rock potentearen entsalada da, Kuraia eta Governors-en melodien aztarnak izan ditzakeena, baina tarteka Pantera gailentzen da –a ze ahotsa!–. *Lubakian* 90eko rock eta stoner eskolakoa, nahiz eta oso melodikoa ere baden. *Zyanid* heavya lotsagabe azaleratu eta hardrock irudimentsua ere uztartzen dituena. *Deforme* heavyaren eta stonerraren arteko muga ia ukiezina. *Ahaztuei* metalaren pisu latzak egingo die gorazarre. *Zaratak min eman arte* urrun gidatzeko moduko 90eko hamarkadako rock metaleroa da. *Eternal* balada indartsu eta sarkorra. Eta, azkenik, *Homonimo* autora eramaten nauen girien sinisberatasun eta indarraren pareko beste pieza amorratua. ●

Ikaragarri bilakatu

DONATIONS PROJECT

NOIZ: Martxoak 18

NON: Fever (Bilbo)

IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Kronika hau aldez aurretik idatz nezakeen, dantzalekuko esperientzia sentsoriala karaktere gutxitan deskribatzea zaila bada ere. Diskurtso hegemonikoa ere gailendu da kultura ofizialaren arrakaletatik kanpoko adierazpenetan. Lur azpian gertatzen denaren kontakizuna eskura eman digute eta uniforme bilakatu dugu. Kronika hau aldez aurretik idatzi izan banu, techno musikaren ahalmen apurtzaileari buruzko hainbat topiko botako nituzke arrapaladan, arnasestuka, teklatuaren BPM-ak topera jarri izan banitu bezala. Untxi zuloei buruz hitz egingo nuke, baita egoaren suntsiketaren eta musika aretoak aldi baterako gune autonomo bilakatzearen goraipamena egin ere. Hala ere, Donations Project ekimenak antolatutako jaialdira hurbiltzea erabaki nuen DJ-en zerrendak erakarrita, gau osoko dantzaldiaren onuren bila.

Donations Project kolektiboak mota desberdineko jarduera musikalak antolatu ditu eta guztietan lortu duten dirua ongintza ekimenei eman diete. Fever aretoan antolatu zuten techno gauean lortutako dirua, adibidez, janari banku bati eman zioten. Techno-ari esker bizi dezakegun esperientzia pertsonal askatzaileari berezkoa duen –eta aspaldi galdu duen– izaera politikoa erantsi diote. Guztiz eskertzekoa, dantzalekuaren gaitasun eraldatzailea ez baitatza, soilik, hedonismoan.

Ohikoa den *warm up* –beroketa– sesiorik gabe hasi zen gaua. Lehen koilarakada Panduro DJ bikotearen eskutik etorri zen eta haien techno gordina hasierako mokadurik gabe irenstea zaila izan zen. Agian horregatik ez nuen lortu gau osoan musikarekin sintonizatzea. Agian jendearen hoztasun eta dantzarako gogo ezagatik izan zen, mahai gainean gozamenerako argudioak jarri baziren ere. Gizaki estatiko berbati ugariz inguratuta egotea ez zen lagungarria izan. Jendeak ardura handiagoa eman zion egoteari esperientziaz gozatzeari baino. Hala ere, gaueko sesioetatik bi nabarmenduko nituzke: SMFORMA-ren EBM industriala eta Judy bilbotarra, jendea astintzeko gogoekin taularatu zena, ohikoa duena baino neurritsuago egon bazen ere.

Testu hau aldez aurretik idatzi izan banu dantzarako musikaren inguruko idealizazio bat eskainiko nizueke. Dantzalekuan egon nintzenez gero, esperientzia ez-asegarria izan zela onartu behar dut. Gure hirian –Bilbon– klub kulturak bizi duen egoera tamalgarriaren beste adibide bat da hau: ganorazko aretorik ez, programazio gorabeheratsua eta kontsumo azkarrekoa.

Dantza-kulturak hausnarketa eta lanketa behar ditu, gurean behintzat, berriz ikaragarri bihurtzeko, berriz lanabes askatzaile eta eraldatzailea izateko. Hori egunez egun egin beharra dago proposamen interesgarriak antolatuz, baita dantzalekura hurbilduz, egoa erantzi eta dantzatzen hasiz. ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA INES OSINAGAK, MUSIKARI ETA PLAZANDREAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.





Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

ERRAZA

4		9	2			3	7	
8		6		7	1			
5		3	9		6	1	8	2
			8		3	2		1
			7	1		5	3	
		8	4	5		9		
		5		2	4	8		
2		1	5	3			9	4
3	6			9	8	7		

ZAILA

	3							
9	2			1	8	6		3
4				2				5
	7		5					
								7
		6			9	4		1
2	9			3	7			
	8	3	1			7		
	6	1	8			9		

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Bizikletaren pieza. 2. Moztu.
3. Xakean, erreginak. 4. Bukaera.
5. Letxugaren barrualdea.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				I	L	A	R	I
2	L				A	D	U	N
3	E	S				I	N	A
4	A	D	O				S	U
5	B	I	T	A				Z
6	D	E	M	O	N			

EBAZPENAK

PUZZLEA: "ADIN BATERA ARTE, EMAKUME MUSIKARIOK EZ GARA ERREFERENTE, PROMESA BAIZIK. BAINA ADIN HORRETARA HELTZEN GARENEAN AMATASUNARI BURUZ GALDETZEN DIGUTE."

5X5: 1. PEDAL, 2. EBAKI, 3. DAMAK, 4. AKABU, 5. LIKUA.

HIZKI BERAK: 1. ERTILARI, 2. LETRADUN, 3. ESTREINA, 4. ADORETSU, 5. BITARTEZ, 6. DEMONTRE

ZAILA

6	3	8	9	7	5	2	1	4
9	2	5	4	1	8	6	7	3
4	1	7	3	2	6	8	9	5
8	7	2	5	4	1	3	6	9
1	4	9	2	6	3	5	8	7
3	5	6	7	8	9	4	2	1
2	9	4	6	3	7	1	5	8
5	8	3	1	9	2	7	4	6
7	6	1	8	5	4	9	3	2

ERRAZA

4	1	9	2	8	5	3	7	6
8	2	6	3	7	1	4	5	9
5	7	3	9	4	6	1	8	2
9	5	7	8	6	3	2	4	1
7	9	5	6	2	4	8	1	3
1	3	8	4	5	2	9	6	7
6	4	2	7	1	9	5	3	8
2	8	1	5	3	7	6	9	4
3	6	4	1	9	8	7	2	5

Ainhoa Resano

ARGAZKILARIA

ARGAZKI ALBUMEK GORDETAKOA

"Carmen eta Puri auzokideen argazki albumetako istorioak entzuten ordu asko eman ondoren, lehenengo proiektu dokumentala egin nuen: *17. eskailera*. Somera kalean hogei urte luzez bizi eta gero, eraikinetik kaleratu gintuzten eta ibaiaren beste aldera lekualdatzean, Savina Lafita ezagutu nuen; antropologoa, memoria eta genero prozesuen ikertzailea. ELLAS proiektua galdera soil batekin hasten da: zer gertatuko litzateke auzoko emakumeei eskatzen badiegu euren albumak erakuts ditzaten?"

"Familia-historiak oinordetzen dira, baina isiltasuna ere bai"

Argazki albumak gordetzen dituzten emakumeen azken belaunaldiarekin topaketak egin ditu Ainhoa Resanok (Iruñea, 1974), Bilboko auzo garaietan. "Asko bizi baina gutxi kontatu duten" emakumeen belaunaldiarekin. Argazkietatik abiatuta, idatzi gabeko memoria azalera ekarri nahi izan du. Auzoko klixeak eta estigmak gaindituz, intimitatetik kolektibora, memoriaren eta nortasunaren aldarrikapen irmoa eginez.

LEIRE REGADAS **HODEI TORRES**

Etxeko argazkiak baliatuta, memoria kolektiboko ariketan, Bilboko auzo garaietako (San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabala) emakumeen historia jasotzen du ELLAS proiektuak. Nola suertatu da?

Oso era naturalean eman da. Haien etxeetan egin ditugu topaketak, eta etxeko argazki albumen bitartez euren bizipenetara heldu gara. Kontakizun horietatik guztietatik memoria-atlasa osatu nahi izan dugu. Album berri bat, album kolektiboa; elkargune bat sortu memoria aktibatzeko.

Nortzuk dira emakume horiek?

Bizitza asko daude toki berean konektaturik, auzo hauetan, Bilboko auzo garaietan. Hainbeste dira, denak garela ELLAS. Euren argazkien bitartez ibilbide oso bat egiten dugu auzoa zeharkatu duten une historiko eta sozialetatik. Bakoitzaren bizitzaren oroimenean gurutzatzen dira dendak, tabernak, zinemak eta eskolak; denak igaro dira Mercheren gozoki dendatik. Argazki horiek elkarrekin nahastean, memoria kolektiboen album berri bat sortzen dute, auzo garaietako historia eta oraina gainbegiratzen dituzten klixeak eta estigmak iraultzen dituena, eta bertako emakume anonimoen bizitzak azaleratzen dituena. Zentroan bizi arren, bazterrekoak direnak; eta nortasun eta biziraupen estrategia indartsuak dituztenak.

Historikoki estigmatizatuta dauden auzoetako emakumeak eta bizilagunak izateak zein lotura du ahanzturarekin?

Bi isiltasun mota daude. Isiltasun autoinposatua, askatasun ariketa bat dena, gogoratu edo esan nahi ez dena isilean mantenduz; eta inposatutako ahanztura, zapalkuntza sozial gisa jarduten duena. Emakumeen istorioak eta ahotsak ez daude historia hegemonikoan, maila globalean ematen den zerbait da hori. Auzo garaietan beste zapalkuntza batzuk gehitzen zaizkio emakume izateari,

"Emakume guztiek esaldi bera errepikatzen dute hasieran: 'Nik ez daukat kontatzeko ezer'".

klasea eta arraza kasu. Horregatik dira hain adierazgarriak beraien testigantzak, hain zuzen ere auzo hauetan estigma, klixe eta tabuak lotzen direlako moja, puta, ijito, trans, etorkin, militante eta poker jokalari horien guztien bizitzetan.

Zer moduz hartu dute proiektua?
Guztiekin izandako topaketak zoragarriak izan dira. Sukalde eta egongeletara sartzeko eta argazkiak eta bizitako istorioak partekatzeko konfiantza esparruak sortu ditugu. Bada esaldi bat guztiek errepikatzen dutena hasieran, mantra bat bailitzan: "Nik ez daukat kontatzeko ezer". Uste dut emakumeen belaunaldi horri gizarteak zor diola beraien bizitzen protagonista sentiaraztea eta euren bizipenei garrantzia ematea. Baina ondoren etorritako guztiei ere zor diegu. Familia-historiak oinordetzen direlako, baina isiltasuna ere bai. Haiek poz-pozik daude eta geroz eta gehiago dira proiektuan parte hartu nahi dutenak.

Espazio pribatutik publikora eraman dituzu emakumeen argazkiak eta istorioak. Zein da banakako memoriatik memoria kolektibora jauzi egitearen garrantzia?
Bildutako argazkiak espazio publikora eraman nituen 2020ko konfinamendu betean. Auzoan erabiltzen ez ziren lokaletako pertsianetan formatu handiko argazkiak txertatu nituen, QR kode banarekin, kodearen bitartez emakumeen ahotsak entzuteko aukera emanez. Memoria indibidual horiek kolektiboan txertatzeak aipatu gabeko errealitateak agerian uzten ditu, norberaren istorio indibiduala izateari uzten dio, leku komunak seinalatuz. Bizitza asko eta auzo bera, eta emakume izatearen baldintza beti presente.

Bilboko auzo garaietan ere ematen ari da gentrifikazio prozesua. Homogeneizazioaren, despertsonalizazioaren eta bizilagunak kanporatzearen aurrean, zer suposatzen du proiektu honek?
Premiazko une sozial eta kulturala bizi dugu, oso garrantzitsua da bertan bizi diren emakumeen kontakizunak entzutea. Etengabe aldatzen ari den auzoa da, memoria ezak mehatxatua. Historia aitortzea funtsezkoa da bertakoen nortasunari eusteko.

Liburu baten argitalpena duzu esku artean orain. Zer aurreratu diezagukezu?
Proiektuaren izaera bizia jasoko duen argitalpena da. Album zabal bat, non protagonistak ikusi eta entzun ahal izango ditugun. Emakumeak euren ahotsetik entzun ahal izatea koherenteena zenez, Alberto de la Hoz soinu pieza bat lantzen ari da liburuan txertatzeko, 30 ordutik gorako lekukotasunetatik abiatuta. Haien ahotsak gurutzatuz, oroitzapen intimo eta pertsonalak berreraikitzen dituzte, eta elkarrizketa koral batean elkartuta, talde testigantza berri bat sortzen da, argitaratu gabeko kontakizun bat. Zazpi hilabete daramatzat edizio eta eraikuntza prozesu betean murgilduta, Federico Paladino de la Balsa editorearekin batera. Esku artean edukitzeko eta partekatzeko irrikaz nago! ●

Hiru pintada ikusi nituen oso denbora gutxian

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Egun batzuetako tartearekin pantailan agertu zaizkit hiru pintada, bi Euskal Herrian eginak eta bestea atzerrian edo, bueno, Huescan, eusko labeldun eskiatzaileek eta ehiztariek sarri samar kolonizatzen duten arren, gure-gurea ere ez den paraje batean –nahiz eta kanta bat ere bageneukan ametsetako lurralde horri eskainia, garai bateko erromeriyak asko alaitu zituena. Orain ez naiz akordatzen nola zen, "gu Huescara, zu zergatik ez?" edo "Huescara, Huescara, jalgi hadi plazara"–.

Artikulu honetan egingo dugun esperantzatik terrorerako bidaian, etxeko atzerri horretatik hasiko gara, zera jarri baitu norbaitek Benasqueko horma batean espraiarekin: "Hori eta katuak bere burua zaintzeko gai direla jakitea zen agure horrek inoiz edukiko zuen zorte on guztia". Antza denez 21 urteko gazte batek idatzi du gaztelaniaz Ernest Hemingwayren *Zubiko agurea* ipuineko esaldi hori, baita antzeko beste 79 ere, ez denak Hemingwayrenak, Charles Bukowskiren testuak ere identifikatu ditu Guardia Zibilak gaztea atxilotu aurretik –portzierto, txapelokerrek testu literarioak fitxatzeko unitate bat ote daukaten pentsarazi dit honek guztiak–.

Ikusi dudan beste pintada batek zera dio: "Noizko Osakidetza euskaldun bat eta ez andaluzez betea". Ospitale baten parean egin dute. Kaligrafiari kasu eginez gero, pintadagintzan esperientzia handirik ez daukan norbait da egilea; edo bestela, mediku bat, zeren, a ze letra-mokordoa. Edukiaz zer esan. Ba sarean zabaldu duen Dabid Martinezek esan duenaz gain –"Euskaldun eta euskaltzale gisa pintada honek lotsa ematen dit"–, Osakidetza euskalduna izan daitekeela lasai asko andaluzez betetakoa, hizkuntza-politika baita kontua, ez ospitaleko langileen jatorria. Eta



2022an oraindik horrelako gauzekin ibili beharrak eragiten didan nagitasunari esker, dominaren bat irabazi ahalko nukeela datozen Joko Olinpikoetan, sofathlon kategorian.

Hirugarren pintada da laburrena: "Z". Ukrainako errefuxiatuak hartzen dituen Kastresanako egoitza baten atarian egin dute, igitaiaren eta mailuaren sinboloarekin batera, eta ausartuko naiz esatera kasu honetan alfabetoko azken hizkiak ez diola Pello Reparazen proiektu musikalari erreferentzia egiten, tanke errusiarrek darabilten sinboloari baizik. Ondoan marraztu duten ikonografia sobietarra gorabehera, uste dut pintadak komunismoaz baino gehiago erakusten digula zerbait matonismoaz; edo gutxienez, agintariak eta herritarrak desberdintzeko gaitasun falta kezkagarri batez, izan ere, Zelenski eta bere Azov batailoiko naziak ukrainar guztiengandik –baita gerran parterik ez izateko dena atzean utzi dutenengandik– bereizten ez dituenak, gauzak ulertzeko organoa pixka bat aberiatuta eduki dezake eta begiratu beharko luke nondik galtzen duen olioa.

Sinetsi nahi nuke bigarren eta hirugarren pintadak asmo txarrez egin dituela norbaitek, beste norbaitzuk xenofobo gisa edo Errusiazale porrokatu gisa agerrarazteko, problema bat fabrikatuz beste problema batzuk estali nahian. Dena den, Huescako grafitigile literatoaren bidetik, Rachel Cusken *Aftermath* liburuko esaldi bat pintatu behar luke norbaitek hemen inguruko hormaren batean: "Sentitzen dut garden bihurtu naizela galeraren erruz: jada ez dago ezer, begiratzen dudanean, seguru sentiarazten nauena". ●

ZIBURUko 3.EUSKAL LIBURU eta DISKO AZOKA

EKAINAREN 4AN
LARUNBATAREKIN
PILOTA PLAZAN

ANTOLATZAILEAK

ARGIA

BALTSAN ELKARTEA

PARTAIDEAK

eke·icb

EUSKAL IRRATIAK

ZIBURU

BABESLEAK

ATALAIA

BOGA

BITTOR. BAR. EXPO

MAITENIA

bertsozale elkartea

ARGIA

TXORI URDINAK

Espetxearen erretratu bat
Santi Cobos presoaren ahotik

Zigor Olabarria Oleaga

Santi Cobosek (Leon, Gaztela, 1968) bizitzaren erdia eman du preso. Pairatu ditu torturak, jipoiak, muturreko isolamendua, FIES sailkapena; burutu ditu hamaika protesta eta ihesaldi saiakera, bahitu ditu funtzionarioak eta poliziak. Bidean, Euskal Herriarekin adiskidetu da. Gordinkeria, umorea, gorrotoa, samurtasuna, hausnarketa nahasten dira Santiren lekukotasunean; bere bizipenez harago, espetxe-sistema ezagutzeko kontakizuna da berea.

212 orrialde

16€

+ 4€
bidalketa gastuak.

40 €-tik gorako erosketetan, bidalketa doan.

Hemendik aurrera erosketak **BIZUM** bidez ere ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus
943 37 15 45

Zigor Olabarriak liburua aurkeztuko du Idoia Arraiza Emagineko kidearekin:

Apirilak 27 19:00tan
Iruñea Laba euskal gunea